

TOKIKOM

2012ko ekaina | 116. zenbakia

ai!kor!

txorierriko aldizkaria

Ángel López, kazetaria

Mikrofonoaren atzeko ahotsa





Larrondoko Ikastetxea
ESPERANZA ALHAMA
Lanbide Heziketa



Aurrez izena ematea (zikloak): maiatzaren 28tik ekainaren 8ra
Matrikulak (zikloak): ekainaren 5etik 13ra
Aurrez izena ematea (PCPI): ekainaren 1etik 15era
Matrikulak (PCPI): ekainaren 2tik 13ra
Ate irekiak: maiatzean (8, 15, 22, 29) eta ekainean (5 eta 12), 17:00-19:00

Heziketa zikloak: erdi mailakoa eta goi mailakoa
Erdi mailakoa

- Ekipo eta instalazio elektronikoak (2.000 ordu)
- Administrazio kudeaketa (1.300 ordu)
- Merkataritza (1.400 ordu)

Goi mailakoa

- Administrazioa eta finantzak (2.000 ordu)
- Sistema informatikoen administrazioa (2.000 ordu)
- Nazioarteko merkataritza (2.000 ordu)

LHIK (Lanbide Hastapenerako Ikastegia)

- Behe tentsioko instalazio elektroteknikoetarako langilea
- Elektromekanikoa
- Merkataritzako laguntzailea
- Bulegoko laguntzailea

INEMeko ikastaroak

- Lanerako prestakuntzako ikastaroak**
- Eusko Jaurilaritzak babestutako zentroa

Hobetuz

Larrondo 2 eta 4, LOIU (BIZKAIA) e-mail: ealhama1@sarenet.es - Informazioa: 94 471 01 51

elekma
 LARRAZOEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
 TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSKAK

lehenengo markak • lehenak onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tecniari erabazteko: 25-3 N • 48160 Ibañeta
 T: 944 539 232
www.elekma.es

Altzari
 EBANISTERIA • CARPINTERIA, S.L.

Zureko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
 946 740 141
 663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisena, 2 - Belako Elkarteagia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

TURREGOITI
JATETXEA

Laura eta etorbidea, 27
 48160 Leku-Bizkaia
 T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteauregoiti.com



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguskiza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Ana Mezo, Erika Pereda, Itsasne Zubiri, Idoia Andres, Derioko Argazki Taldea DAT, Jose Angel Mentxaka, DerioKOMunikazioa, Ioritz Larrabeiti, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



Loiuko eta Aldekoneko jaiak

16 Hegazkina jausi zen Erandion

30 Igoeraz igoera futbolean

- 4 Eritxia
- 5 Laburrak eta albisteak
- 11 Iruditan... Mari Gorri
- 12 Gaztea eta... Aimar eta Oier, pilotariak
- 14 Loiuko jaiak
- 16 Literatura
- 18 Ángel López, kazetaria
- 22 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 24 Aldekoneko jaiak
- 26 Hegazkina jausi zen Erandion
- 30 Taldeak... Igoeraz igoera futbolean
- 32 Txorierriartua... Roberto Martínez, kolonbiarra
- 34 Teknologia
- 35 Aikorrizketan... Zapoak eta sugeak erre?
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa
- 38 Agenda

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Saito - Txangoak - Animalaren heziketa

Telefonaia:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 35 • 48196 LEZAMA

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Representación de vinos

Bizkaiko Txakolina

Geltokia: Buzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emiliano

Menu berriak zabalduak • Egurko menua eta karta
Ezazu oraineko platerak • Jantzeriak eta ebentzak
Bardak zabalduak • Jantzi zaharrik

B.º Gortoliza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia



ANA MEZO
(Irakaslea)

Paperezko prentsa eta paperezkoa ez den beste horren gainean gogoeta batzuk egin gurako nituen. Aurretik doa esatea, ondoko argazkian ikus daitekeenez, aurpegiko ximurrek erakusten dutela lapitz, paper eta borragoma sasoi-koa naizela. Lan profesionalak sartu nau teknologia berrietan. Harritu egin ninduen jakiteak adin batetik beherako oso pertsona gutxi erosten dutela egunero egunkaria, eta adin horretatik gorako erosten ere ez direla horrenbeste egunero erosten dutenak.

Teknologia berriak erabiltzean desberdindu beharko litzateke ikusi eta irakurri behar direnak, esaterako, egunkari eta aldizkari digitalak, eta ikusi eta entzun egiten direnak, esaterako, telebistak. Hauek abantaila handiak dituzte. Erakargarriak dira, kolore eta irudi multzo handia erabiltzen dute, arinak dira, hedadura zabala dute, asko eta asko doanekoak dira, eguneratzeak egiteko ere aukerak ematen ditu eta abar. Baina, aldi berean, manipulatuak eta manipulagarriak dira, eta globalizata dagoen munduari lehentasuna ematekoak. Batzuetan badago intimitate urraketaren sentazioa ere, entzun eta irakurtzen duguna eta idazten duguna oso agiriaren geratzen delako, eta sarritan betiko.

Hau guztia jarri da orain arteko paperezkoen aurrez aurre. Formatu honek badi- tu bere desabantailak: arbolak behar ditu, ordaindu egin behar da, ez da horren arina, norberak ere denbora gehiago behar du irakurtzeko, besteen besteko kolorek ere ez dauka... Ekonomikoki sostengarria izan

dadin, diru-laguntzak derrigorrezkoak dira, baita harpidetza ere, baina nik neuk bi abantaila garrantzitsu ikusten ditut. Bata, formatuak berak gogoetarako aukera handiagoa ematen du, egunkari, aldizkari edo liburua hartzea urri daukagun denbora hartzea ere badelako. Bestea, informazio, gertakizun luzeak eta kulturaren transmisiorako aproposagoa delako. Hirugarren bat ere aipatuko nuke, paperezko hori toki desberdin askotan irakur daiteke. Batzuen- tzat plazerra da komunean ere irakurtzea.

Paperezkoaren kasuan aspektu negati- boak aipatu baditut ere, hemen esanda- koa horren alde egitera dator, uste dudala- ko paperezko formatu horrek bere funtzio- ak betetzen dituela. Gehiago da denen arteko oreka bilatzea beste ezer baino. Hiz- tegi bat formatu digitalean funtzionalagoa izango da, ostera, gogoetarako eta aten- porala den idatzia papererako aproposa- goa da. Edozelan ere, aldaketa hauek mun- duaren ikuskera desberdinak ematen dituzte.

Txorierriko bidegorriaren proiektuaren lehenengo pedal kolpeak eman dira. Ez da berehalako eki- mena izango, urteak pasatuko dira azpiegitura hau ikusi eta gozatu arte, baina herritarrok 'agendan' idatzi behar dugu.

Egitasmo hori kutsaduraren kon- tra eta osasuna eta mugikortasunaren alde izango da. Bizikletaz ibiltzearen onurak ugari eta ezagunak dira. Hala ere, Derion bidegorriak badaude, baina txirrindulari gutxi, eta Txorierri egoera ez da ezberdina, gaur egun ere txirringa ez delako mugitzeko erarik gustukoena.

Bidegorriak



ERIKA PEREDA
(Kazetaria)

Parke Teknologikoa aranaren bihotzean dago, badaude herri esko- lak eta institutua, eta txorierritar askok gure etxetik distantzia gutxira egiten dugu lan. Ezinezkoa? Ez, eta adibidea hemen ondoan daukagu, Bilbon, bizikleta eguneroko elemen- tua bihurtu den lekua.

Idea eta proiektu berriak sortzea ondo dago, baina horiek erabiltzea ere bai. Horrexegatik gure instituzio publikoek sentsibilizazio-kanpaina gaur bertan egiten hasi beharko dute. Txorierriko bidegorria errealitate bihurtzen denerako, erabiltzaileak prest egon daitezten.



INPRIMATEGIA GARA!

1000 gutun-orri + 500 gutun-azal + 200 txartel

229€

BEZ kargoa

Exklusiba bertan
5 BLOK Debalde

Eskaintza urtaileran 15ean bukatuko da



www.cianoplan.es



Futbola, oinarritik euskaraz liburua aurkeztu da



TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioak bultzatutako *Futbola, oinarritik euskaraz* liburua aurkeztu da ekainean, Bizkaiko Foru Aldundian. Futbol entrenatzaileak euskaraz trebatzeko lehen eskuliburu didaktikoa da eta terminologiaz dago josita. Bizkaiko Futbol Federakundeak antolatzen duen entrenatzaileen eskolako ikasleek erabiliko dute liburua irailetik aurrera. TOTOANez eta Aldundiaz gainera, besteak beste, Eusko jaurlaritzak, Bizkaiko Futbol Federakun-

deak eta Itzarri eta Kirolene enpresek hartu dute parte proiektuan.

Futbola, oinarritik euskaraz liburuak euskara normalizatzea du helburu, batez ere aisialdian, futboleant. Argitalpenak sei kapitulu ditu, eta gai hauek aztertzen dira bertan: oinarri psikopedagogikoak, lehen sorospenen eta higienearen arloko oinarritzko ezagutzak, kirolaren egitura eta legeria, kirol-entrenamenduak, oinarri anatomikoak eta oinarri soziologikoak. Liburuak oinarritzko gaiak (ikasgai komu-

nak) jorratzen ditu, eta datorren ikasturteari begira, ikasgai espezifikoak landuko dituen lana eramango da plazara. Bigarren eta hirugarren ikastaroetara zuzendutako materiala ere argitaratuko da.

Prentsaurrekoan partaide hauek aritu ziren: Josune Ariztondo Kulturako foru diputatua; Miren Dobaran Aldundiko Euskara sustatzeko zuzendari nagusia; Jose Angel Iribar Athleticceko jokalaria ohia; Bizkaiko Futbol Federakundeko Kepa Allica; eta Itzarri enpresako Koikili Lertxundi.

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna
Leizola plaza, 9 - Behe (Zamudio)
94 455 99 69

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com
Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W
www.gaminiz.com

ESTILISTA
EVA ARDINES
AmAr
Asteartea - Ostirala: 9etatik-19etara
Larunbata: 9etatik-14etara
Uribe Plaza, 1 - Behe 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19; (Aurreko txanda)

EGUNEKO
MENUAK
ESPEZIALITATEA.
TORTILLAK
Lehendakari Leizola Plaza, 6
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 04 68

Topaguneak Euskara Elkartearen Federazioak "Irakurri, gozatu eta oparitu" kanpaina jarri du abian, eta Lagatzu Zamudio-ko euskara elkarteak bat egin du harekin. Kanpainak euskaraz irakurtzea sustatzea izan du helburu. Horretarako, erosketa-txekea eman zaie udal liburutegian euskarazko liburu bat maileguz hartu dutenei: liburutegiaren erabiltzaileek % 25eko beherapena duen erosketa-txekea jaso dute; eta elkarteko bazkideek, % 50eko beherapena duen erosketa-txekea. Era berean, 30 euroko erosketa-txekea zozketatu da liburutegira jo duten irakurleen artean. Irabazlea Maialen Lezika izan da. Bestetik, aipatu beharra dago ekainaren 30ean, herriko liburutegian beste zozketa bat egingo dela. Bertan ere 30 euroko erosketa-txekea zozketatuko da liburuak erosi dituztenen artean. Erosketa-txekeak uztailearen 7ra arte erabili ahalgo dira liburutegian.

Euskaraz irakurtzea saritu du Lagatzuk



Arostegik "Mikel Zarate" saria irabazi du

Lezamako Udalak eta Elkar argitaleak "Mikel Zarate" literatura saria antolatu dute hirugarren aldiz. Saria Gaizka Arostegik irabazi du. Arostegik *Urrezko orrazia* eleberria aurkeztu du lehiaketara. Saritzat 3.000 euro jaso ditu eta liburuak udazkenean kaleratuko da. Istorioak hari bi nahasten ditu: alde batetik, familia bat dago, gurasoek eta alabak osatzen dutena, eta oinordetzaz etxe zahar bat jaso-

tzen dutena; bestetik, fantasiazko mundu bat dago, zeinetan sorginak, lamiak eta beste izaki mitologiko asko baitaude.

Gaizka Arostegi Portugaleten jaio zen 1965ean, eta gaur egun Castro Urdialesen bizi da. Telebistan aritu da teknikari, eta helduentzako hainbat liburu idatzi ditu, euskaraz zein gaztelaniaz. Haurrentzat idazten orain dela gutxi hasi da, kalean *Nerbioiko piratak* lana duela.

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietta

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ORTUDONTSIA ESTETIKOA
DENTARRAK ZEPHILDUNAK

Dr. Arriola kalea, 11 - 1. ezk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

MUNCIA

ANULACIONES - SEPTICAS

Garbiketa eta mantentze-lanak • 24 orduko zerbitzua
Estoldieria • Tatuak • Moli septikoen

Pirra, 2C, 4. behe 1 48170 Zamudio, BIZKAIA
T: 94 446 02 09 | Fax: 94 446 75 99
muncia@saneamientosmuncia.com | www.saneamientosmuncia.com



Txakolinaren Eguna, Lezaman

a: Jon Rozadilla



Eguraldi kaskarra egon bazen ere, Txakolinaren Eguna aurreikuspenak bete zituen, eta oso arrakastatsua izan zen. Ekimena ekainaren 10ean egin zen, eta Lezaman jendetza batu zen. Guztira 42 salmenta-postu jarri ziren azokan, eta horien artean, bertoko zazpi txakolingile izan ziren. Ekoizleek, bisitariek zein agintariek azpimarratu zuten txakolinaren kalitatea. Datu ofizialen arabera, 3.200 txartel saldu ziren; hau da, 3.200 kopa txakolin, 534 botila inguru. Eta datuoi ekoizle bakoitzak saldu zuena gehitu be-

har zaie, gainera. Txakolinaz gainera, euskal nekazaritzako produktuak ere jarri ziren salgai eta ikusgai: ogia, euskal pasta, ezti, fruta, gazta eta barazkiak, besteak beste. Era berean, taloa eta ogitarteak hartzeko txosnak jarri ziren eta tailerrak antolatu ziren. Herriko elkarte batzuek ere postua eduki zuten, eta bertan euren jardueraren berri eman zuten. Lezama Saretzen elkartekoek haragi-pintxoak jarri zituzten salgai, eta, esandakoa- ren arabera, 1.300 pintxo saldu zituzten.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago Lezamako Udalak omenaldia egin ziola Iñaki Aretxabaleta herriko txakolingileari. Aretxabaletak barrikan hartzituta- ko txakolinak Urrezko Bachus saria jaso du aurtan.

ASADOR ARAMENDI



**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

BAR BIDE-BI



Goizeko 5etatik
aurrera zabalik

Gosari bereziak

Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

**ERREKA LOND
ETXEA**



Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnua.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

**CAFE-BAR
BIDE-GORRI**



Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

Garmendia ardoak



Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

Tenisa sustatuko dute derioztarren artean



Derioko Kiroldegia eta Riba akademiak hitzarmen bat sinatu dute. Hitzarmenak herritarrek teniseari aritzera animatzea du helburu. Horretarako, heziketa profesionalizatua, arrazoizkoa eta erraza eskainiko dute. "Herrian tenis eskola sortu eta tenislariak gazte-gazterik direla kirol honetan trebatzea dugu helburu. Gainera, proiektua lagungarria izango da gazteen artean eta herritar guztien artean ohitura osasuntsuak bultzatzeko", esan du Maite Bolunburu Kirol, Merkataritza eta Berdintasun zinegotziak.

Uztailean, lehenengo eskolak eman go dira kanpoko tenis-pistan. Eskolak martitzenetan eta eguenetan izango dira, 16:00etatik 21:00etara, eta hiru euro balioko dute. Horietan bost urtetik gorako umeei eta helduei parte hartu dezaizkete. Izena ematea kiroldegiko tenis-pistan bertan egin daiteke, edo 689 605 546 telefono zenbakira deituta (Chus Luengo). Proiektua Bizkaiko herritar guztiei dago zuzenduta, eta ez da beharrezkoa izango kiroldegiko bazkidea izatea. Hitzarmenak urtebete iraungo du eta luzatzeko aukera egongo da.

ELKARTEEN JAIALDIA.-

Ekainean, Kultura eta Kirol Elkarten Jaia egin zen lehenengo aldiz, Sondikan. Herriko talde bakoitzak ekimen bat antolatu zuen egun horretarako. Hala, kalejira egon zen goizean, eta, futbol 3 txapelketa, herri kirolak eta umeei zuzendutako herri krosa izan ziren, besteak beste. Herri bazkaria ere egin zen, eta bertan ehunka lagunek hartu zuten parte. Arratsaldean, puzgarriak ipini ziren txikientzat, eta mus eta briska txapelketa-tailerrak antolatu ziren. Soinu, txistu eta euskal dantzen alardea eskaini zen. Ostean, erromeria egon zen Erdizka lauetan taldeen eskutik.





Txori bikers, Loiu

a: Jon Goikouria Larrabeiti

Agintaldi honetan, Loiu Udalak herriko bizitza kulturala eta aisialdiko bultzatzea hartu du helburutzat. Horretarako, hilabete behin ekimen erakargarri bat antolatzea erabaki dute. Besteak beste, hauek egin dituzte aurreko hilabeteetan: auto klasikoaren kontzentrazioa, Putxera Lehiaketa, mendi martxa eta herri krosa. Uztaileko, motorren kontzentrazioa antolatu dute.

Txori bikers Motorren Loiu Kontzentrazioa uztailaren 14an eta 15ean izango da, goizeko 10etatik aurrera. Zazpaturako izena emateak 10 euro balio du, eta goizeko 10:30ean egin behar da udaletxeko eskaileretan. Parte-hartzaileek poltsa bat jasoko dute, eta haren barruan informazioa, txartelak, opariak eta planoak egongo dira. Herriko plazan *custom*

motorrak jarriko dira ikusgai; eta *sport*, *naked* eta turismo motorrak, Alonsotegi enparantzan. Erakusketak arratsaldeko 4ak arte egongo dira zabalik. Eguerdian txitxi-burruntzia eskainiko da, eta, ostean, errepidera aterako dira motor-gidariak. Narcis Rocak akrobazien erakustaldia egingo du arratsaldeko 6etan. Ondoren, jolasak eta dezibelio proba izango dira. Sahieskia erreko da afarirako eta opariak zozketatuko dira. Parte-hartzaileek eskuan argi-zuzia dutela egingo dute jaitsiera, gaueko 22:30ean. Kontzertua Devil wow taldeak eskainiko du, eta haren txanda Dj Renék hartuko du.

Domekarako izena emateak bost euro balio du. Motorren erakusketak goizeko 10:30etik 11:30era bitartean egongo dira zabalik, eta 11:00etan ibilbidea egingo da. Eguerdian kopaua eskainiko da eta opariak zozketatuko dira.

Oporretako argazkiek badute saria

Altzora Sondikako euskara elkar-teak Argazki Lehiaketa antolatu zuen iaz, lehenengo aldiz. Gaia "Oporrak" izan zen eta lehiaketara lagun askok agindu zituzten argazkiak. Beraz, iazko arrakasta ikusita, aurtengo ere egitea erabaki dute. Argazkiak uztailaren 1etik irailaren 7ra arte agin daitezke posta elektronikoz helbide honetara: altzora.ee@gmail.com. Parte-hartzaile bakoitzak argazki bi agindu ahal izango ditu, eta argazkiok jpg formatua eduki beharko dute. Argazkiekin batera datu hauek azaldu beharko dira: izen-abizenak, telefono zenbakia, e-maila, argazkia ateratzen den lekua, data eta irudiari buruzko aipamena. Irabazleak sari biren artean aukeratu ahal izango du: lagun birentzako bazkaria edo nekazalturismo batean gaua ematea.

Munduko dantzen agerraldia

Uztailaren 21ean, munduko dantzak izango dira ikusgai Sondikan, Portugaletako Nazioarteko Folklore Jaialdiaren barruan. Ekitaldia arratsaldeko 8etan hasiko da Goronda Beko kiroldegian. Gorantzaileak Sondikako dantza taldearekin batera, Sulaimaniyah Kurdistaneko taldea eta Guana-guare Venezuelako dantza taldea ari-tuko dira. Sarrera doakoa izango da.

Peru Vidal, Uribe Butroeko txapelketa

Ekainaren 9an, Uribe Butroeko Bertsolari Txapelketa egin zen Sondikan. Txapelketan hauek hartu zuten parte: Jone Larrinaga, Asier Legarreta, Malen Amenabar eta Beñat, Inazio eta Peru Vidal. Txapelketa azken horrek irabazi du eta zuzenean sailkatu da Bizkaiko Txapelketara. Gainerakoek puntuazioaren arabera sailkatuko dira.

makla
arkitektura

Teknologi Parketako Elkartegia 804 E - 107 B
94 461 79 21 48600 Derio, Bizkaia
953 06 386 estudio@maklaarkitektura.com
920 080 11 www.maklaarkitektura.com

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txartelari emateko: 9-4
413 Buztina
48100 Derio

Telefonoa eta faxa
94 434 44 55
a.amondarain@euzkadi.net

TXAKURREN
ILE-APALDEGIA

Hongilake eta Gernikako
arbolaren txakurren
48100 Derio
T: 94 404 21 80

Mihiluze Txapelketa erabat arrakastatsua izan da Txorierrin



a: DerioKOMunikazioa

Ekainaren 1ean, "Mihiluze Txorierrin" lehiaketako finala izan zen Derioko Kultur Birikan. Txapelketak ikusmin handia sortu du gure gaztetxoaren artean, eta aretora pila bat lagun hurbildu ziren. Gehienek txapelketaren kamiseta zuten jantzita, eta pankartak-eta eraman zituzten, haien herriko taldea animatzeko. Finalean hiru bikote aritu ziren eta hura sondikoztarrek

irabazi zuten. Saritzat Warner Bros Parke-ra bidaia bana jaso zuten. Bigarren Lezamako bikotea lotu zen; eta hirugarren, Deriokoa. Lezamarrei Iparraldera bidaia bana eman zieten saritzat; eta hirugarrenei, Senda Viva natura-parkera bidaia bana.

"Mihiluze Txorierrin" Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak martxan jarritako ekimena da. Euskara Zerbitzuaren helburu nagusieneta-

ko bat, euskara eskolatik atera, eta gazteek aisialdian eta egunerokotasunean ere erabiltzea da. Azaldu digutenaren arabera, ekimen honekin asmatu dute. Izan ere, txapelketan 5. eta 6. mailetako 114 ikasleek hartu dute parte (Txorierriko eskola publikoetan, 246 ume daude maila horietan), eta 16 kanporaketa, bost final (bat, herri bakoitzean), finalurreko bi, eta Txorierrin mailako final bat egin dira. "Oso ekimen aproposa izan da. Konturatu gabe, eta oso modu ludikoan, euskara erabili ez ezik, hizkuntza landu ere egin dute gaztetxoek, txapelketa hasi baino lehen eta hark iraun duen bitartean ludotekan, etxean, ikastetxean... praktikatzen ibili direlako". Egindako esfortzua ageri gelditu zen finalaren egunean. Hala, irabazleek gehienez egin ahal ziren puntuak lortu zituzten, eta bigarren eta hirugarrenak ere puntu gutxira gelditu ziren.

Txapelketa erabat arrakastatsua izan dela zalantzarik ez dago, eta ETBko saioan ere hemengo berri izan dute. Mankomunitateko euskara teknikaria, kultur suspertzailak eta ludoteketako ardura-dunak batuko dira datozen egunotan, aurtengo txapelketa aztertu eta datorren urtean ezarri beharreko hobekuntzen gainean aritzeko.

Mahai ekonomikoa jarri da martxan

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak eta Egaz Txorierrik Mahai ekonomikoa sustatu dute eskualdean. Egitasmoak enpresen, erakundeen eta eragile ekonomiko eta sozialen arteko lankidetzaz bultzatzea du helburu, tokiko ekonomia garatzeko. Besteak beste, lan mahaia eratu da, enpresek gaur egun dituzten arazoei edo beharrezanei erantzun komuna emateko. Era berean, elkarrekin aurre egin beharreko erronkak eta egiteko diren jarduerak definituko dira, krisi eta enpleguaren egoera hobetzeko. Txorierrin 2.433 enpresa daude eta horietan 36.998 lagunek egiten dute lan.





Mari Gorri

Udaren etorrerarekin, Mari Gorrik lur hartu du Txorierrin. Zenbait hilabetez belar artean biziko da, inurrien, kakarraldoen eta akainen artean. Gainerako intsektuek ez bezala, Mari Gorrik mundu berdean jartzen du arreta. Marigorringoek duten xarma berezia horretan datza, beharbada. Batek daki.

Gizakiok geure munduan bizi gara, aurrean dugun munduari soilik erreparatuz. Tamalez, sarritan ahazten dugu, begien aurrean dugun errealitateaz gain, Mari Gorrirena bezalako istoriotxoak ere topa daitezkeela oinen azpian.

Baina nork makurtuko du burua, zutik han gustura egonda?

Testua eta argazkia:

Jon Goikouria Larrabeiti

www.flickr.com/photos/jongoikoh



Komodin
koltxoí denda

Preziorik onenak koltxoirik onenetan

Txorierrin etorbidea, 15 (SONDIKA)
94 653 13 35 komodin@komodin.es

KOLTXOI-SORTA ZABALA




59 €-tik aurrera




pikolin banatzaile ofiziala

KOLTXOIA + EGURREZKO KANAPEA

Bisio malguduzia

349 €



135 x 190

* inbuntatzei ez daigo baima

zuria



wenguea



gerezandoa



Kantxako bikoterik onena

Finala Bermeoko bikote baten kontra jokatu eben; Uribe Kostako finala irabazi eutsen bikote beraren kontra, hain zuzen be. Beraz, errebantxea hartu dabe eta garaipena askoz gozoagoa izan da. Gainera, Uribe Kostan izandako porrota eragingarria izan da, Bizkaiko Txapelketan indar handiagoz jarduteko. Zorionak emon deusez familiak, lagunak eta taldekideek. Azken horreetako batzuk enbidia apurategaz ibili dirala esan deuskue; entrenatzailea, harro. "Alde handia dago hasi ziranetik orain arte. Eta bai, txapelketea irabazi dabe, baina datozen urteei begira pelotan jarduten eta ikasten jarraitu beharko dabe, serio".

Txapelketa gatxa izan zala aitatu deuskue, partida batzuk galdu egin zituela, eta lehiakiderik gogorrenak Zornotzakoak, Elorriokoak eta Bermeokoak izan zira. "Zornotzakoak, esate baterako, bosterraino ateraten eben sakea, eta Oier eta

OIER HORMETXE ETA AIMAR ASTIGARRAGA | pelotariak

Pozik baino pozago harrapau doguz Oier eta Aimar Lezamako pelotalekuan, entrenaten diharduela. Eta badaukiez halan egoteko arrazoia, Bizkaiko Pelota Txapelketea irabazi dabelako benjamin mailan. Txapelketaz, pelotaz eta etorkizuneko asmoez aritu gara gaztetxoakaz eta euren entrenatzaile leltxu Beatogaz.

*Gaztetxoek
Bizkaiko Pelota
Txapelketea irabazi
dabe benjamin mailan*

Aimar apur bat bildurtuta ibili ziran. Hailanda be, danak urten dau ondo finalaurrekoetan eta finalean. Oso pozik nago lan bikaina egin dabelako ikasturte osoan". Oier aurrelaria da, eta Aimar atzelaria. "Ondo moldatzen gara alkarregaz. Animoa emoten deusagu alkarri eta handik ateraten dogu indarra". Entrenatzailea ados dago. "Bikote bikaina osatzen dabe: alde batetik, beharrezkoa bada, bata zein bestea, kantxan, aurrean edo atzean ibiltzeko gauza direlako; eta bestetik, euren arteko komunikazioa lehenengo momentutik izan dalako oso ona. Komunikazioa ezinbestekoa da emaitza onak izateko; eta ez bakarrik kantxan, pelotalekutik kanpo be bai".

Oier Lezamakoa da; Aimar, Leioakoa. Biek hamar urte daukiez, eta bakotxaren pelota eskolan benjamin gehiagorik ez egoteak bihurtu ditu bikote. "Lezamako Pelota Eskolagaz jokatu dabe eta Bizkaiko Txapelketea irabazi izana ona izan da herriarako, pelota eskolarako eta gainerako pelotariarentzat. Baina Leioako Pelota Eskolagaz jokatu balebe, ni bardin-bardin egongo nintzan pozik, kasu horretan be ederto egingo eben", esan deusku leltxuk. Datorren ikasturtean bakotxa bere herrian arituko da, kimu kategoriara pa-



KIM
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Goititza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

URAS
Estetika eta masajea
Alta Pabli Ugalde, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - behea | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19



sauko diralako eta bikotea osatzeko aukerea eukiko dabelako. Baina urte bi barru aurtan euki daben arazo beragaz topauko dira, beharbada. Ez jake inporta eta prest dagoz barriro alkarregaz aritzeko. Are gehiago, Aimarri ez litxakio inportauko Lezamara itzultzea. "Berton oso hartu-emon politikak daukadazalako".

Bikoteka nahiago

Leioakoa bost urte zituela hasi zan pelotalekuan, anaiaren entrenatzaileak animauta. Eta Oierrek aitagaz jokatzan eban, etxeko frontoi txikian. Gogor entrenaten dira eta banaka zein bikoteka jokatzen arren, bikoteka aritu nahiago dabe, "dibertigarriagoa dalako eta gauza gehiago konpartitzen dogulako". Profesionalak izatea gustauko litxakie, "baina oraindino asko faltaten da horretarako. Nasai hartu

"Ondo moldatzen gara alkarregaz. Animoa emoten deusagu alkarri, eta handik ateraten dogu indarra"

behar dira gauzak", esan deutse leltxuk. Euren pelotaririk kutunena Aimar Oilazola da, eta Oierrek aitatu deusku ez jakola Irujoren izaera txarra gustaten. "Jakin behar da irabazten, eta jakin behar da galtzen. Finalari begira halan esan neutsen: irabazten badozue, bikain! Baina galtzen badozue, ez da ezer gertatzen. Irabazleengana joan eta emon bostekoa. Irabazi ala galdu,

onenak zarie niretzat", komentau dau entrenatzaileak. Balioak be irakasten ditue pelota eskolan.

Bizkaiko Txapelketea irabazi ostean, herri batzuetako txapelketetan jokatzen deitu deutsee; esaterako, Sopela eta lurretako txapelketetan. Baina denporaldia amaitzeaz dago eta udako oporren ostean, barriro hasi behar da beharrean. "Ikasten gabilz, galtzen, irabazten, galtzen... Irabazteko, galdu be egin behar dalako", azpimarratu dau leltxuk. Eta batez be ikasten dabilz, autortu dabelako teknikea hobetu behar dabela. Arreta handiz jarraitzen deutsee entrenatzaileen argibideei eta konfiantza dabe berarengan. Eta, noski, alkarrengan. Berba politikak daukiez bata bestearantz, mirespena eta begirunea. Osagai guztiak, kantxan bikote bikaina osatzeko.

GORBEIA MERTZERIA



Gorbela kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

Patxi KOOP.
BANATZAILE OFIZIALA

Mehon

Sakeleko telefonoa: 947 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
✉ faxa: 94 452 25 87
patxikoop@patxi.coop

www.PATXI.COOP



Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

a: Bestorrene

Jai-egitaraua Udalak berak antolatu dau, jai-batzorderik ez dagoalako. Halanda be, parte-hartzea bultzatu dozue zenbait bide erabilita.

Bilerak egin doguz urtariletik hona eta bertan auzokide batzuek hartu dabe parte, ekarpenak eta iradokizunaz eginez. Gainera, gazteak gizarte-sare nagusien bitartez aritu dira jai-egitaraua osatzeko prozesuan. Izan be, Loiuko Udala aitzindaria da eta gizarteko lau sare garrantzitsuenetan dago: twitter, facebook, tuenti eta Google+. Bestetik, aitatu beharra dago Loiuko webgunea etenbarik barritzen dogula eta Newsletter sistemea bultzatu dogula, erabiltzaileei Udalagaz zerikusia dauen informazio eguneratua e-mailez agintzeko.

Beraz, herritar guztiek eukiko dabe zer ikusi eta zegaz disfrutau aurtengo jaietan.

Udalak filosofia aldatu dau legegintzaldi honetarako, eta herriaren bizitza, esparru guztietan eta adin guztietarako, dinamizatzea hartu dau erronkatzat. Ondorioz, gitienez hilean behin ekitaldi erakargarri bat antolatzea erabagi dogu. Filosofia-aldaketa horrek jai-egitarauan izan dau eragina. Halan, ekimenen % 63 gazteei eta gaztetxoei dagoz zuzenduta, esaterako txapelketak, skate eskolea, kontzertuak eta herri jolasak.

Ekitaldi gehienak hareei zuzenduta egon arren, ez dozuez helduak eta nagusiak ahaztu.

Helduek gazteei zuzendutako ekimenetarako batzuek gozau ahal izango dabe, jakina. Baina eurentzako ekimenak be eukiko dabez: kirol eta gastronomia txapelketak, dantzaldiak, herri bazkaria, bilbainadak eta Golden Apple Quartet taldearen emonaldia, bakar batzuk aitatzearen.

Nobedaderik egongo da aurreko urteen aldean?

Azpirarratzekoak dira gazteentzako zein nagusientzako kontzertuak, kalidadezko taldeak ekartearen aldeko apustua egin dogulako. Horrezaz gainera, azken urteotan bagabilz apurka-apurka nobedadeak sartzen: Tortilla eta Pintxo Txapelketak, Play back Txapelketea, Futbol Indoor Txapelketea... Padel Txapelketea izango da garrantzitsuena aurtan. Egia esan, 40 ekimen baino gehiagok osatuta-

"Gizarte-sare garrantzits dira gazteen parte-hartze

JOSU ANDONI BEGOÑA | alkateordea eta Kultura, Kirol eta Ong

Loiuztarrak motorrak berotzen dabilz San Joan gauetik hona, herrian ekitaldi sorta zabala antolatu dalako. Edozelan be, San Pedro eta Santa Luzia zaindarien jaiei ekainaren 28an emongo deutsee hasiera ofiziala. Herritar guztiei zuzendutako eta ekimenez betetako egitarauaz goatzeko aukerea egongo da.



ko jai-egitaraua dogu. Ezin dogu asko gehiagorik antolatu, gehiegi izango ziralako bestela.

Zeintzuk izango dira ekintzarik erakargarrienak?

Paellen Eguna jaietako egun izarra da, zalantza barik. Aurreko urteetan bezala, zapatuan egingo da. Baina Betagarri eta Akerbeltz taldeen kontzertuak ekitaldirik erakargarrienak izango dira aurtan, baita Golden Apple Quartet taldearena be;

herriko zein Txorierriko lagun asko erakartek espero baitogu.

Zelan antolatuko da jai-gunea?

Gune nagusia Herriko enparantzan atonduko da; hau da, udaletxe aurreko plazan. Ekintzarik gehienak bertan izango dira: kontzertuak, dantzen agerraldia, sardina-jana, Pintxo Lehiaketea... Paellak udaletxe inguruko landetan egingo dira, eta futbol eta padel txapelketak, bakotxa bere zelaian. Pala Txapelketea Zanaloe-

uenak erabili a sustatzeko"

i zate zinegotzia

*"Ekimenen % 63
gazteei eta gaztetxoei
dagoz zuzenduta"*

*"Betagarri eta Golden
Apple Quartet taldeen
kontzertuak ekimenik
erakargarrienak
izango dira"*

txeko frontoian izango da, eta jolasak, umeentzako aterpean.

**Zer itxaroten dozue aurtengo jaie-
tatik?**

Harmonia eta poztasuna nagusi diran jaiak izatea gura dogu. Eta egunerokotasuneko arazoak –ekonomia arloko azken gertaerak, adibidez– denpora-tarte batez ahaztu ahal izatea. Uste dot jai politak izango dirala, familiagaz eta lagunakaz pasetako modukoak. Herriar eta txorierriar guztiak jaietan parte hartzera konbidatu gura dodaz.

**Arazo ekonomikoak aitatu dozuz.
Zelako eragina euki dau gaur egungo
krisiak jai-egitarauan?**

Une latzak dagoz Estaduan zein nazi-noarte mailan, eta testuinguru horretan Loiu ez da salbuespena. Halanda be, udal baliabide ekonomikoak egoki kudeatu dira azken urteotan, eta horri esker krisiaren eragina ez da hain handia izan gure herrian. Edozelan be, egia da aurreko urteetan jaietan parte hartu daben enpresa batzuk itxi egin deusiela ekarpena egi-teari. Baina %90ek jarraitu egin dabe diru-ekarpena egiten, eta enpresa barri batzuk be badagoz.



Jai-egitaraua

Ekainak 28, eguena

- 19:00: Jatsierea Zaparrada batukada taldeagaz, eta Koadrilen Lehiaketea.
- 19:30: Pregoia, Jose M^a pelotalekua-
ren jagolearen eskutik.
- 19:45: Kartel Lehiaketearen sariak
banatzea.
- 20:00: Dantzen agerraldia, Goialde
taldearen eskutik. Larrakoetxe jai-
batzordeak antolatua.
- 20:00: Pala Txapelketearen finalaurre-
koa, Irtxan taldeak antolatua.
- 21:00: Pala Txapelketearen II. Finala-
urrekoa, Irtxan taldeak antolatua.
- 21:00: II. Play back Txapelketea.
- 22:00: Dantzaldia, Egan taldeagaz.

Ekainak 29, barikua. San Pedro

- 11:00: Kalejirea.
- 11:00-14:00: BBK SkateeskolaTour
2012, skate pistan.
- 12:00-13:00: Haurrentzako tailerrak,
kirol pistan.
- 12:30: Mezea eta Pedro Guallarren
kontzertua. Ostein, aureskua.
- 13:35: Kontzertu laburra, Iñaki Basa-
beren eskutik. Gure Etxeak antolatua.
- 14:30: Nagusientzako bazkaria, Zaba-
loetxeko frontoian. Bazkalondoan, bil-
bainadak Iñaki Basabegaz. Gure Etxeak
antolatua.
- 17:00: II. Dantza Lehiaketea.
- 16:00-18:30: BBK SkateeskolaTour
2012: probak, txapelketak eta sariak.
- 18:00: Tortilla Txapelketea.
- 20:00: Tortillak aurkeztea, Herriko
enparantzan.
- 20:00: II. Gau zuria. Koadrilarik orijina-
lenari saria emotea.
- 22:30: CD Loiu udaletxeko balkoian
hartzea.
- 23:00: Kontzertuak: Betagarri eta
Akerbeltz.

Ekainak 30, zapatua. Santa Luzia

- Goizean zehar, puzgarriak.
- 10:00: VIII. Paella Txapelketea.

- 11:00: Haurrentzako Pintura Lehiake-
tea, kirol pistan.
- 11:30: II. Futbol Indoor Txapelketea-
ren finala (seniorrak).
- 12:00: Haurrentzako herri jolasak.
Moltos motorren Txapelketea eta
Ugelaxo-toka Txapelketea.
- 12:30: Mezea.
- 14:00: Paellak aurkeztea.
- 17:00: Apar jaia.
- 18:00: Paella Txapelketearen sariak
emotea. Ostein, dantzaldia Hotza tal-
deagaz.
- 22:30: Dantzaldia, Luhartz taldeagaz.
Ondoren, diskotekea.

Uztailak 1, domekea

- 11:00: Euskadiko Soka-tira Txapelke-
tea.
- 11:30: Kalejirea.
- 12:00: Aeromodelismo tailerra, hau-
rrentzat.
- 12:00: Mezea.
- 13:30: Pintxo Lehiaketea.
- 14:00: Pintxo Lehiaketearen sariak
emotea.
- 14:30: Herri bazkaria (bakotxak bere
janaria eroan behar).
- 17:30: Padel Txapelketearen finala
(seniorrak).
- 18:00: Pala Txapelketearen 3. eta 4.
postuak, Irtxan taldeak antolatua.
- 18:30: KIDAM magoa.
- 19:00: Pala Txapelketearen finala,
Irtxan taldeak antolatua.
- 20:00: Sardina jana.
- 21:00: Golden Apple Quartet taldea-
ren emonaldia.
- 22:00: Pantxikori agur esatea.



Literaturea ikusgarria izan da Larrabetzun

Larrabetzu irakurle eta idazleen topagune bihurtu da barriro, Euskal Herriko bazter guztietatik etorri diralako ekainean Literatura ekimena dala eta. Asteburu oso batez atera ditue letrak kalera, eta girotu dabe herriko bizitza. Literaturea herritarrengana hurbildu da, eta herritarrak, literaturara. Antolatzaileak pozik azaldu dira izandako erantzunagaz.



a: Idoia Andres

"Aurtengo Literatura polita eta emonkorra izan da. Euskera hutsezko produkzioen barri emoteko sortu genduan, eta gure hizkuntza eta kulturea ahalik eta jente gehienara helarazoteko. Beraz, erantzuna dagoan heinean, pozik gagoz. Baina beti beharrean, gure kultur ondareak zabaltzeko ahaleginetan. Presa barik, baina ekinean". Ekimena laugarren aldiz antolatu dabe aurtan, eta bertaratu diranek literaturaz hainbat modutan gozatzeko erea euki dabe. Izan be, adin eta gustu guztiei zuzendutako egitarau oparoa eta erakargarria izan da hiru egunez. Aurtan, Estepan Urkiaga *Lauaxeta* idazleak izan dau protagonismo berezia. Egitarauaren barruan izan dira solasaldiak, mahai-inguruak, poesia errezitaldiak, antzerkia, bertso tramea, hip hop abeslariak, kontzertuak, gazteek Mikel Zarateri eginiko omenaldia, AEK-ko lagunek prestatutako ipuin antzeztua, umeei marrazturiko liburu azalen erakusketea, liburu aurkezpenak... "Emonaldiak sendotu egin dirala esan daiteke, azken urtetan bezala, guztietara jente ugari hurbildu dalako. Kalidadea egon da eta parte-hartzea be nabaria izan da".

Halan, karpea lagunez bete zan *Lauaxeta* idazlearen omenezko ikuskizun zoragarria ikusteko, eta irakurle talde asko, "igaz baino gehiago", batu ziran hareei zuzendutako eztabaida-gunetan. "Halako gauzei balio handia emoten deutsegu". EH3 hip hop taldeak Koldo Izagirreren testu baten inguruan eginiko moldaketeak be ikusmin handia sortu eban, eta nagusientzako antzerkia be ikusleen gustukoa izan zan. "Programeari jagokonez, balorazioa ona da, oro har. Halanda be, duda barik, azokea da indartu beharreko puntu nagusia. Literaturiara argitaletxe asko etorten dira, haren ahaleginak egiten dituela, eta, eskaintza oparoa egon arren, azokara ez da jente

*"Emonaldiak sendotu
egin dirala esan
daiteke, guztietara
jente ugari
hurbildu dalako"*



larregirik hurreratzen. Eremu hori landu behar da, jentea euskal produkzinora hurbiltzeko, eta hataz gozau eta konpartitu daien”.

Ezaugarri bereziak

Larrabetzuko Literatura Eskolak orain dala lau urte jarri eban martxan Literatura ekimena hainbat helburugaz: urteko lehenengo hilabeteetan argitaratutako liburuak solasaldietan hizpide izatea; euskerazko literatura ikusgarri egitea, literatureak adierazoteko dituen genero eta formatu guztien jakitun ipintea herritarrek, idazle eta irakurleen artean hartu-emon zuzena sustatzea, eta literaturarako zaletasuna bultzatzea. Literatura ekimen berezia da, beste azoka batzuek ez daukiezan ezaugarriak ditutana. Euskera hutsezko literatura ardaztat dauen egitasmo bakarra da Euskal Herrian, eta literaturazaleek eurek antolatutako ekimena da, euren beharrianak, gabeziak eta

jakingurak asetzeko. Era berean, eragile askoren ekarpena jasoten dau: irakurleak, idazleak, hezkuntzan dabilzanak, erakunde publikoak...; eta literaturearen adierazpide guztiak ipinten ditu erakusgai: liburuak, musikea emonaldiak, irakurraldiak, bertsoak, gogoetak, mahai-inguruak, antzerkia... Bertan herritar guztiek, txikiek zein nagusiek, badaukie zer ikusi eta zertaz gozau. Literaturea mundua eta bizitzeta ulertzeko beste bitarteko bat dala dinok, baita hizkuntzea lantzeko tresnea be. Euskerazko literatura ezagutzeko, gordeteko eta zabaltzeko ahaleginean eragile guztien alkarlana jotzen dabe ezinbestekotzat. “Alkarlana behin eta berriro eskertu gura dogu, ahalegin handia eta parte-hartzea handia egon dalako lagun guztien partetik. Herriko alkarleen laguntasuna eskertu gura dogu, baita norbana-koengandik jasotako laguntasuna be. Doazala esker onak, Literatura Eskolaren-tzat eta Larrabetzu herriarentzat”.

“Programearen inguruko balorazinoa ona da; halanda be, azokea indartu beharrekoa da”

“Alkarlana behin eta berriro eskertu gura dogu, guztion ahalegina eta parte-hartzea handiak izan diralako”



LARRABETZU
94 455 81 97
LOROÑO BEHEKO (BIZKAIA)

GAZTELEKU TABERNA
Andra Mari, 6 - Larrabetzu
94 455 88 97



olasko erreak egiten doguz

Peluleria
Estetika
94 455 81 44
Angulien 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia



Miguel Angel Lekue, garraiolaria.
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20



Oguiza
Hortz Klinika
Kirurgia eta inplanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzoiaren tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak

Angulien enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890



Fede Merino, Udane Goikoetxea, Pedro Mari Goikoetxea, Sara Gandara... Txorierrri kazetari handien eskualdea da, eta Ángel López lezamarra (1970) beste adibide bat baino ez da. Ángelek urte bi daramatza Onda Vasca irradian, baina aurretik bederatzi urte eman ditu Radio Euskadin. Estudioan egin dugu elkarrizketa, eta mikrofonoa itzalita egon arren, pasioz eta zintzotasunez hitz egin dio hari.

t/a: Gaizka Eguskiza

Txorierrrikoa zara, baina aspaldian ez zara berton bizi...

Bai, lezamar eta txorierritar peto-petoa naiz: Lezaman jaio nintzen, Txorierrriko Institutuan ikasi nuen... Hala ere, azken urteotan bizitzak eta lanak kanpora eraman naute. Gurasoak hil zirenetik bailararekin dudana harremana txikiagoa da, baina hura mantentzen saiatzen naiz: esate baterako, astero-astero umeak eramaten ditut Lezamako Pilota Eskolara. Txikitan neuk ere jokatzeko nuen bertan, eta horrela umeek aitaren herria ezagutzeko aukera dute. Horretaz aparte, ahal dudanean, jaietara edo ospakizun berezietara ere hurbiltzen naiz herrira. Txorierrri bailara berezia da, bizitasun itzela dauka-eta.

Hitz egin dezagun zure ibilbide profesionalari buruz...

Kazetaritza ikasi nuen Euskal Herriko Unibertsitatean. Geroago, praktikak egin nituen hainbat lekutan: Radio Euskadin, tokian tokiko komunikabide batzuetan... Geroago eskaini zidaten Palentzian irrati martxan jartzea eta onartu egin nuen.

Palentzian?

Bai, lagunek esaten didate horrelakoak niri baino ez zaizkidala gertatzen (kar, kar). Oso istorio bitxia eta hunkigarria da Palentziakoa. Mungian egiten nuen lan neskalagunarekin, eta Palentziako men-

“Erabat maitemindu

ANGEL LOPEZ | kazetaria



“Txorierritar peto-petoa naiz: bailara berezia da, bizitasun itzela du-eta”

dian irrati martxan jartzeko eskaini zigten. Lekua zoragarria da, Europako Mendietan dago, natura-erreserban. Niri natura izugarri gustatzen zait, eta Barruelo de Santullán herria eta bere ingurua oso basatiak dira, oso aproposak naturaz gozatzeko: arrantza egiteko, menditik eta

bizikletaz ibiltzeko, perretxikoak biltzeko... Eskualde menditsua da eta komunikabideak, nahiko txarrak. Halaber, elurra egiten du azarotik aurrera. *Doctor en Alaska* telesaioa bezalakoa zen. Han irrati zero-tik jarri genuen martxan: antenista hartu, materiala erosi, estudioa alokatu eta atondu, herrikoekin negoziatu antena euren etxean jartzen uzteko, langileak kontratatu, proiektuaren berri eman... Irratia ilar-gian egitea bezalakoa zen. Palentziako mendian Estatu mailako irrati batzuk besterik ez ziren entzuten, eta ez zuten eza-gutzen guk egin nahi genuen bezalakoa tokian tokiko irratiarik. Irratiak “haize berriak” ekarri zizkien hango bizilagunei, eta jendeak bat egin zuen proiektuarekin. Nahiko arrakastatsua izan zen, baina urte bi pasa eta gero ez ziguten baimenik eman

ta nago irratiarekin"



eta itxi behar izan genuen. Politikariek esan ziguten emango zigutela, baina ez zuten euren hitza bete. Injustizia izan zen, baina esperientzia polita.

Palentziako menditik Radio Euskadira. Hori aldaketa hori!

Bai, Radio Euskadin denetarik egin nuen bederatzi urtean: bekadun, erredaktore, gaueko kirol saioaren zuzendari eta kudeatzaile ibili nintzen. Ogibidearen alderdi gehienak ezagutzeko aukera izan nuen.

Eta zergatik EITB utzi eta Onda Vasca joan?

EITBko lagunek ez dute oraindik ulertzen. Oso pertsona idealistatza hartzen dut neure burua. Erabakiak hartzeko orduan ez ditut beste batzuk liluratzen dituzten gauzak kontuan hartzen. Garai batean, EITB asmo handiena zuen Euskal Herriko proiektua izan zen. Eta kazetari guztiek bertan lan egin nahi zuten. Hala ere, duela hiru urte alderdi berri bat sartu zen Eusko Jaurlaritzan eta haiekin batera beste kudeatzaile batzuk etorri ziren irratira. Nire lana ez zen inoiz arriskuan egon, baina erabakiak hartzeko gaitasuna galdu nuen. Apur bat proiektutik kanpo sentitu nintzen. Egoera hartan Onda Vascako proiektua jarri zen martxan. Oso erakargarria iruditu zitzaidan hasieratik eta proiektuan sartzeko aukera sortu zenean, ez nuen alferrik galdu. Askoren ustez, atzera-pausoa izan zen; nik, ordea, erronkak ikusi nituen. Gainera, Onda Vascan nire aspaldiko lagunek eta lankideek egiten zuten behar eta niretzat erraza izan zen erabakia

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cole, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagolti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS

**ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA**

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

BITXTETEGIA - ERLOJU-DENDA

Ruben

Lehendakari Leizaola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

BAR RAFI

ESPEZIALITATEA: PINTXOAK

Rafael Garcia Tejero

Oiz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

T: 94 406 08 08
Mobila: 607 406 613

*“Bokaziozko kazetaria
ez naizen arren,
izugarri gustatzen
zait hitz egitea eta
komunikatzea”*

*“Irratiak izugarrizko
xarma du, baina
barruan zaudenean
baino ezin duzu
hori nabaritu”*

hartzea. Onda Vascako proiektuak agerian utzi du fidagarria dela eta ametsak dituela. Eta niri, idealista naizenez, ametsak zoriontasuna ekartzen didate.

Zergatik iruditu zitzaizun hain erakargarria Onda Vasca?

Palentzian bizi izan nintzena etortzen zitzaidan burura: proiektu gaztea, ilusioz betetakoa eta azkar hazi behar zuena. Gainera, bietan oso erantzun ona jaso dugu entzuleengandik. Bietan oso garrantzitsua da langileon ilusioa, ekimena. Batzuetan horixe da inportanteena, dirua edo proiektuaren garrantzia bera baino. Onda Vascan profesional onek osatutako lan-talde polita egin dugu, eta horrek irauten duen bitartean, irratia arrakastatsua izango da.

Aldaketa, beraz, oso pozgarria...

Zoriontasuna bukatu egiten da noiz-bait, galkorra da. Epe laburrean egiten diren proiektuak askoz ekintzaileagoak eta

sutsuagoak dira. Urte bi daramatzat Onda Vascan eta oso biziak iruditu zaizkit. Eskuz egindako irratia izan da eta erabakitze gaitasun handia daukat. Horrek ardura handia dakar, baina baita erronka polita ere, bai oker zaudenean, bai zuzen zaudenean. Etorkizunari begira, auskalo! Onda Vascak gauzarik zailena lortu du: finkatzea.

Zure ibilbide gehiena irratian egin duzu. Zure aukera izan da ala horrela suertatu da?

Bokaziozko kazetaria ez naizen arren, izugarri gustatzen zait hitz egitea eta komunikatzea. Ez nuen espero hori ogibide bihurtzea. Hasiera batean harreman hotza nuen irratiarekin; gero arduratsu ibili nintzen; eta gaur egun erabat maiteminduta nago irratiarekin. Irratiak izugarrizko xarma du, baina barruan zaudenean baino ezin duzu hori nabaritu. Irratiak harrapatu egiten zaitu.



Programazio, Kirol eta Emisioen arduraduna zara Onda Vascan. Zertan datza zure lana?

Egun batetik bestera aldatu egiten da, betebeharrak anitzeko kudeatzailea naizelako. Goizean egunkari guztiak irakurtzen ditut eta gaien aurreikuspena egiten dut: saioetako lankideekin hitz egiten dut eguna prestatzeko, gaiak eztabaidatzen ditugu... Beste alde batetik, irratitik igortzen duguna aztertu behar dut, emaitza ona ala txarra den ikusteko, eta horregatik gabiltza denbora osoan zehar irratia entzuten, *pinganilloari* lotuta. Halaber, askotan merkataritza sailarekin egiten ditugu bilerak, iragarleei gauza ezberdinak edo ausartak eskaini nahi dizkiegulako. Beste mota batzuetako bilerak ere egiten ditugu hainbat erakunderekin, Euskal Herrian zer egiten den jakiteko. Egia esan, lana gustatzen zait, eta gustura nago irratia honetan: langileok inplikazioa dugu eta taldea gara. Horixe da irratia mugitzen duena.

Zure lana bulegokoa da. Faltan botatzen duzu estudioa, mikrofonoa?

Bai. Izugarri. Promozioak-eta egiten ditut, baina ez da gauza bera. Bulegoan





lan handia daukat eta lankideak oso kapazak direnez, ez naute estudioan ezertarako behar. Beraz, bulegoan jarraituko dut.

Aurten Futbol Liga Profesionalak (LFP) debekatu egin die irratiei futbol zelaietan sartzea horren truke ordaintzen ez badute. Zelan bizi izan duzue debekua Onda Vascan?

Gatazka kaltegarria da guretzat, partidak estudiotik igortzea zelaitik egitea baino txarragoa baita. Kudeatzaileen ikuspuntutik, ordea, alde onak ditu: esate baterako, askoz merkeagoa da, bidaietan eta aurrezten dugulako. Halaber, komunikabide guztiok (bai handiek, bai txikiak) izan dugu arazo berbera eta, ondorioz, bakoitzaren baliabideak orekatu egin dira. Gatazka ez da erraz konponduko. Alde batetik, klubek dirua behar dute; bestetik, komunikabideek ez dute dirurik. Nik uste dut debekuak xarma kentzen diola futbolari eta LFP-aren erabakia ez dela zilegia, baina erakunde pribatua denez (nahiz eta diru iturri batzuk publikoak izan) nahi duena egiteko eskubidea du.

“Bielsa da urteko pertsonaia Bilbon”

Ángelen ibilbidea betidanik egon da kirolari lotuta. Lezamarrak Athleticen inguruko editorialak idazten ditu noizean behin *Deia* egunkarian. Eta gogo handiz egiten du, batez ere aurtent. Izan ere, Ángelen esanetan, Athleticen denboraldi “zoragarria” egin du. “Baina ez final bietara ailegatzeagatik, baizik eta izugarritzko ilusioa piztu duelako. Aurtengoa errepikaezina da: Manchesterren kontrako kanporaketa, Sporting de Portugalen kontrako itzulerako partida... Giroa itzelezkoa izan zen. Gainera, nire seme-alabek Athletic sentimendua ezagutzeko aukera izan dute. Eta hori sekulakoa da niretzat”.

Denboraldiaren protagonistetako bat Marcelo Bielsa entrenatzailea izan da. “Urteko pertsonaia da Bilbon. Iturgina izan balitz, mirespena sortuko zuen berdin-berdin. Izugarri gustatzen zaizkit bere pentsamenduak. Iaz Txilen idatzitako artikulua batzuen berri eman genuen irratian. Zoragarriak dira, ez dute iraungitze-datarik. Ezberdina da: Seat Ibiza auto batean joaten da lane-ra, txandalez jantzita, normaltasun

osoz. Normaltasuna da bere bertuteetako bat, eta miretsi egiten dut horregatik. Eta dirua ez da bere lehentasuna; bestela, ez litzateke Athleticen geldituko, hainbat eskaintza zoragarri jaso baititu. Pena ematen dit, ordea, elkarrizketa egin ezin izatea, baina horrek handitu egiten du mitoa”.

Datorren urteari begira, Ángelek uste du “ezinezkoa izango dela aurtent baino hobeto egitea”. “Europa Ligan bigarren gelditzeak meritu handia du, baina inor ez da bigarrenarekin gogoratzen. Hurrengo denboraldian Athleticen ez du finalik jokatu, ziurrenik. Hala ere, askoz hobeto ibiliko da Ligan, eta Txapeldunen Ligarako sailkapena lortzeko borrokatu behar du; horrexek izan behar du helburua. Oso jokalaria handiek jokatzen dute taldean eta Txapeldunen Ligan aritu behar dute. Horrela, jokalaririk onenak Bilbon geldituko dira”.

Horietako bat Fernando Llorente da. Aurrelaria klubarekin dabil negoziatzen kontratu berria, eta inork ez daki azkenean Bilbon jarraituko duen ala ez. “Urte hasieran uste nuen baietz, baina gaur egun ez daukat argi. Nik uste dut Eurokopa txarra egiten badu hemen geldituko dela; bestela, alde egingo du, Ingalaterrara ziur asko. Athleticen dirutza eskaini dio kontratua luzatzearen truke, baina kanpoan askoz gehiago eskaintzen diote. Hogeita zazpi urte ditu eta berak erabaki behar du: Bilbon gelditu eta mitoa izan klubean; edo kanpora joan eta, agian, tituluren bat irabazi”.

“Athleticen denboraldia oso ona da, ilusio handia piztu duelako, ez finaletara ailegatzeagatik”

OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK
lasai
Luis M^a Asensio
Osteopata
Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

**MODA
INFANTIL**
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26
48160 DERIO
Bizkaia

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku
Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Krimasajen
Tasak erotitakoak, 9 - Lonja | Artea erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezaindus.com | www.dentalezaindus.com

**clínica dental
ZAINDUZ**
hortz klinika

Gazte-ruta

Gazte-ruta

Mankomunitateak duen erreminta da, gazte-politikak diseinatu eta martxan jartzeko. Ekimena hurrengoetan oinarritzen da: Mankomunitateak berak arlo honetan izandako esperientziak, Bizkaiko Foru Aldundiko "Gaztedi Bizkaia" proiektua eta Europako Batzordearen zenbait programa eta politika.

"Gazteen erabateko integrazioa lortu behar da. Horretarako, ahalik eta emantzipazio – autonomiarik handiena dakartzan nahitaezko proiektuak garatu behar dira, eta partaidetza-prozesuak bultzatu behar dira, sen demokratikoa aberastea ahalbidetzen dutenak, eta harro gauden gizartea eraikitzeko lagungarriak direnak". Hori da gazte-politiken helburu orokorra. Gazte-politikak udal mankomunitatuen eskuduntza dira eta Txorierriko gazteen betebeharrak modu zehatzean asetzeko sortu dira, gaur egungo egoera ekonomiko latza kontuan hartuta.

Horretarako, zeharkakotasunetik egingo da lan. Hau da, helburu komunak Mankomunitatearen eta hura osatzen duten udalen lan-eremu ezberdinetatik sustatutako programen bidez beteko dira. Era berean, baliabideak optimizatuko dira, eta ekintza eta planteamendu guztien etengabeko hobekuntza bultzatuko da. Hurbiltasuna Gazte-ruta proiektuaren beste ezaugarri bat da. Hala, zerbitzuak, gazteei zuzendutako ekipamenduak eta ekintzak herrian bertan eman eta egingo dira, horiek gazteengandik gertu egotea sustatuz.

Gazte-ruta ekimenari joan den urteko azken hiruhilekoan eman zitzaion hasiera. Handik hona, kolektibo hauek egindako ekarpenez eta iradokizunez elikatu da: gazteak, gazteen elkarteak, gaztelekuak, udal mankomunitatuetako kultur teknikariak, Mankomunitateko arlo ezberdinetako teknikariak (esku-hartze komunitarioa, gizarte-zerbitzuak, berdintasuna, euskara...) eta alderdi politikoak. Bestetik, proiektua jasotzen duen dokumentua Mankomunitatearen webgunean egon da ikusgai, herritarrek nahi beste ohar egin zezaten. Beraz, inolako zalantza barik, Gazte-ruta adostasunaren emaitza da.

Gazte-ruta kudeatzeko, Mankomunitateak antolaketa-dokumentu zehatza egingo du ekitaldi bakoitzean. Dokumentu horretan lerro estrategikoak, arloak, zenbatze ekonomikoa, helburuak, adierazleak eta abar batuko dira. Ekitaldiaren amaieran, Kultura eta Euskara arloko Batzorde Informatiboak baloratu egingo du dokumentua. Gazteek ere parte hartu ahal izango dute dokumentuaren jarraipenean zein ebaluazioan. Txorierriko Gazteen Informaziorako Bulegoaren eta hark udalerrri bakoitzean dituen informazio-guneen bitartez egin ahal izango dute hori. Dokumentua www.e-txorierri.com webgunean dago ikusgai.





*Gazte-ruta
gazte-politikak
diseinatu eta
martxan jartzeko
erreminta da*

*Gazteen erabateko
integrazioa lortzeko,
autonomia handia
dakartzan proiektuak
eta partaidetza-
prozesuak bultzatu
behar dira*

*Proiektua hainbat
kolektibok egindako
ekarpenez eta
iradokizunez elikatu
da joan den
urtetik hona*

*Egitasmoaren
antolaketa-dokumentu
zehatza egingo da
ekitaldi bakoitzean;
gazteek parte hartu ahal
izango dute horren
ebaluazioan*

*Dokumentua
www.e-txorierrri.com
webgunean
dago ikusgai*

Gazte-ruta Ildo estrategikoak

Burujabetza

Lana

–Lanean txertatzera, hezkuntzara eta heziketara bideratuta

Etxebizitza

–Emantzipazioa sustatzea eta etxebizitza erostearen eta alokatzearen gaineko informazioa

Higikortasuna

–Garraio kolektiboa erabiltzea eta higikortasun osasungarria

Gure estiloa

Gizarteko esku-hartzea

–Gizarte-ongizatea
–Erabateko gizarte- eta kultura-inklusioa

Balioak sustatzea

–Bizitza osasuntsua
–Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna
–Jasangarritasuna
–Euskara
–Kultura

Lurralde aktiboa

Partaidetza

–Informazioa eta komunikazioa gizarte-sareen bitartez bultzatzea
–Gazteen ekimenei, elkarteei eta borondatezko lanari laguntza ematea
–Berrikuntza soziala
–Komunikazio jarraitua, dinamikoa eta eraginkorra

Erronkak, gastronomia eta munduko dantzak

Jai-egitaraua

Uztailak 25, eguaztena.

Santiago

- 11:00: Kalejira.
- 12:00: Meza.
- 14:30: Paella Txapelketa.
- 16:30: Mus Txapelketa.
- 17:30: Paella Txapelketaren sariak ematea.
- 19:00: Dantzen agerraldia, Lainomendi taldearen eskutik.
- 19:30: Tortilla Txapelketa eta horren sariak ematea.
- 21:00: Berbena, Trio alai taldearekin.

Uztailak 26, eguena.

Santana

- 11:00: Kalejira.
- 12:00: Meza.
- 13:00: Sukalkia dastatzea.

Uztailak 30, astelehena

- 16:30-19:30: Umeentzako jolasak.
- 19:30: Mozorro desfilea.
- 21:00: Mozorro Txapelketa.
- 22:30: Mozorro Txapelketaren sariak banatzea.
- 23:00: Berbena, Alaiki taldearekin.

Uztailak 31, martitzena.

San Inazio

- 11:00: Kalejira.
- 12:00: Meza eta kopaua, nagsientzat.
- 13:00: Dantzen agerraldia, Pendzson Hungariako taldearen eskutik.
- 18:00: Gizon-astoa norgehiagoka.
- 19:00: Idi probak.

Abuztuak 3, barikua.

San Esteban

- 12:00: Meza.
- 13:00: Kopaua.
- 14:30: Sukalki Txapelketa.
- 16:30: Mus eta Briska Txapelketa.
- 18:30: Txakurren erakusketa.
- 20:00: Sariak banatzea.
- 20:30: Txerriak dastatzea.



a: DAT

Uztailaren 25etik abuztuaren 3ra bitartean jaietan ibiliko dira Derioko Aldekone auzoan. Santuen izendegiari egingo diote errepasoa, kalejirak, txapelketak, musika eta dantza lagungarri dituztela.

Aurtengo jaiak Udalak antolatu ditu. Aurreko urteetan bezala, gastronomia txapelketak izango dira, auzokideen sukaldaritzako dohainak ezagutzeko. Zehatz-mehatz hiru txapelketa izango dira: paella, tortilla eta sukalkia. Paella Txapelketa irabazten duenak 70 euro eta garaikurra jasoko ditu saritzat, bigarrenak 50 euro eta garaikurra eta hirugarrenak 30 euro eta garaikurra. Sukalki Txapelketari dagokionez, irabazleari 100 euro eta garaikurra emango dizkiote, bigarren lotzen denari 70 euro eta garaikurra eta hirugarrenari 30 euro eta garaikurra. Bestetik, Mozorro Lehiaketa antolatu dute San Inazio bezperarako. San Inazio egunean bertan proba berezia egongo da Aldekone: Iñigo Aurrekoetxea zamudioztarra asto baten kontra arituko da norgehiagoka. Biek 615 kiloko harria eraman beharko

dute arrastaka. Astoak egiten duen iltze bakoitzeko, harria metro batean mugitu beharko du Iñigok. Era berean, Portugaleten egiten den Nazioarteko Folklore Jaialdiaren haritik, Pendzson Hungariako taldeak dantzen agerraldia eskainiko duela aipatu beharra dago. Lainomendi dantza taldeak ere ekitaldia eskainiko du aurreko egunean. Gau alaiak izango dira uztailaren 25ekoa eta 30ekoa, Trio alai eta Alaiki taldeek girotuko dutelako hurrenez hurren. Jaiei amaiera emateko, txakurren erakusketa antolatu du Mascotas Maider dendak San Esteban egunerako. Eta iluntzean, txerriak banatuko da auzokide eta lagunaren artean.



ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com
(Derio) 946 451 781

Albaitaritza **HENAR ORTUONDO**
ALBAITARIA
Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)
DERIO
LARRIALDIK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatu: 1815

aldehone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Uribe 7, behe
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrikoritas doan
-Especialitatea:
umeak

t i k t a k
EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria
9€
Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

harategia - urdaitegia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA
Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Jatetxea **SAN ISIDRO**
EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 96
Fax 94 454 14 12
Mungialde etorbidea, 25
48160 DERIO

LOREGARBI
GARBIKETA ZERBITZUAK
Gehi-ikusiak, erorkorrak
Auzokorren lurrenontzok
Mantentze gehi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enbarrak garbitzeko
Gaztetxeak
Zabur hileak
Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

ISCITTO
www.iscitto.com
iscitto@euskalnet.net
USTIAPENA,
SALMENTAK, SAT

Peluquería Bego
estetika solarium
Uribe kalea, 6 behe 94 454 27 97 94 48160 Derio

MAKINA AUTOMATIKOAK:
KAFA, LATAK,
SNACK, TABAKOA
Idorsolo ind., 5. nabea 10. pab. 48160 DERIO
Tel. 94 454 33 34
656 78 66 84 / 85 - Fax: 94 454 29 04

eleizalde
kafetegia
Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean) 48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

ZIRIKADA JATETXEA
www.zirikadaderio.com
94 454 50 45
Gaztelumendi Plaza, 1
48160 Derio

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA
Unibax despaindegia
Estetika
Ordulegi jarraitua
Laser-depilazioa
Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

ESTANKOA Ana Artiñano Inchausti
Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel/Fax: 94 454 15 41
anaarti@euskalnet.net



Abioiaren argazkia, istripua izan aurretik. Irudi deigarria ikus dezakegu han, "Nose Art"-ekoa. "Bachelor's Bride" "Mutl Zaharren emaztegaia" bezala itzul dezakegu.



Abioia istripua gertatu eta gero. Lurra Erandioko Bizkerre ondoko landetan hartu zuen. Atzeko mendixka Gorna da. Argazkia Inigo Perez de Errastik atera zuen.

Hegazkinlari amerikarrak
Lagine Larrondoko txalet
honetan izan ziren



Istoriaa Historia bihurtu da

t/a: Jose Angel Mentxaka


Etxean beti entzun dugun istorioa da. San Juan inguruko domeka zen, eta gure ama, Miren Madariaga, garai hartan 16 urte zituen, Jose Antonio Aresti auzoko umea jagoten zegoen etxean. Baserriak Eguzkietxe zuen izena eta Erandiogoikoa eta Goierri artean dago kokatuta. Etxeko nagusiak mezan zeuden. Goiz erdi aldera, abioi handi bat ikusi zuten zeruan, Algotarantz zihoana. Baina, bat-batean, buelta eman, eta, gero eta beherago hegan egiten zuela, gure etxera zuzendu zen, artez-arte. Ama oihuka hasi zen eta korrika joan zen goiko soloetarantz, atzera begiratu ere egin barik. Umea, beldur-tuta, etxe barrura sartu eta logela batean ezkutatu zen.

Kontatutakoaren arabera, etxearen parera ailegatu zenean, hegazkinak eskuineko hegoa altxatu eta teilatuaren arrasean pasatu zen, etxea bota barik. Baina ezkerreko hegoarekin apurtu zuen etxe atzean zegoen argi-indarraren postea. Abioiak 300 metro aurrerago lortu zuen lurra hartzea, Agarretxu eta Bizkerre arteko solo batean.

Hegazkin batek etxea bota zuen berria heldu zitzaizen mezan zeudenei, eta auzokideak laster hasi ziren lekura hurbiltzen. Lekuko baten esanetan, tripulazioa eskuan pistola zutela atera ziren hegazkinetik. Eta lasai ederra hartu zuten, Frantzia ez zeudela azaldu zietenean. Izan ere, gertaera hau II. Mundu Gerraren testuinguruan kokatu behar dugu. Abioia eta pilotuak amerikarrak ziren eta Frantzia okupatua zebiltzan bonbardatzen. Hegazkinetako matxura batengatik ezin ziren Ingalaterrara itzuli, eta alemanen esku gelditzearen beldur ziren. Inguruko batek, Pedro Dañobeitiak, bazekien ingelesez eta elkarri ulertzea lortu zuten. Bilboko kontsul amerikarra eta militarrek laster ailegatu ziren. Batzuek diote amerikanoek jausgailuak aldean zeramatzatela hegazkinetik atera zirela, eta haiek ondoko baserrikoei eman zizkietela. Inguruko andrekin seta-telazko jantzi berriak estreinatuta omen zituzten urte horretan. Baina

*Abioi amerikarrak
Agarretxu eta Bizkerre
arteko solo batean
hartu zuen lurra*

*Tripulazioak lasai ederra
hartu zuen Frantzia
ez zeudela azaldu
zitzaienean*



beste bertsio baten arabera, soldaduak heldu eta jausgailuak kendu zizkieten.

Jende ugari hurbildu zen bertara, eta soldaduek luzaroan egon ziren abioia zaintzen, ia urtebete, harik eta apurka-apurka hura desmuntatu eta pieza guztiak handik eraman zuten arte.

Beste lekuko bat

Aitak, Anselmo Mentxakak, 18 urte zituen orduan eta handik nahiko kilometrora bizi zen, Larrondon. Ederto gogoratzen du egun hori. "Sutegi baserrira joan nintzen txakolin bila. Bueltan, Igiliz baserriaren parean nengoela, Lezama aldetik ikusi nuen hegazkin bonbaketaria. Leioa inguruan buelta eman, eta bazirudien Sondikako aireportura bideratu nahi zuela. Aireportua obratan zegoen. Ez zuten lortu eta Erandio aldean jauzi zen". Beste hainbeste lagun bezala, arratsaldean joan zen abioia ikustera. "Soldadu ugari inguratuta zegoen. Gari solo baten jauzi zen eta baserritarra protestaka zebilen, hara hurbildutako kuriosook dena zapaltzen genuelako. Militar batek isiltzeko esan zion, ordainduko zitzaiola". Aitaren esanetan, abioiari motor bat falta zitzaion. Lurra hartzen saiatzen zebiltzala munan jo eta motorra atera omen zitzaion. "Pilotuak abila izan behar izan zuen, solo horietan lurra hartzeko. Ezkerreko hegoan, argi-indarraren postearen kontrako kolpearen ondorioz egindako

Hegazkinak "Bachelor's Bride" zuen izena; mutilzaharraren emaztegaia

Egun berean hegazkin bi jauzi ziren Euskal Herrian: bata, Erandion; eta bestea, Orreagan

koska ikusgai zegoela zioten". Egun horretan, hegazkina ikusten zegoela, aitak ez zuen imajinatzen urte batzuk beranduago ondoko baserrira ezkonduko zenik. "Hegazkinlariek Lagine Larrondoko txaletean hartu zuten ostatua. Inoiz hango presan ikusi nituen, bainua hartzen".

Hasieran esan bezala, istorio hau hainbat aldiz entzunda dugu. Behin, jakininez, Bizkaiko Foru Aldundiko liburutegira jo genuen, orduko prentsan zerbait argitaratu zen jakiteko. Istripua izan zen urtea ez genekien, eta hainbat egunkaritan begiratu ostean ez genuen arrastorik aurkitu. Egia esan, halako gai militarrek zentzuratu egiten ziren prentsa frankistatan. Geroago, Wikipedian topatu genuen


**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 10 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbollean jokatu, etorri zaitez Trippyra, Deriora

Beheko Kalea Bajo
DERIO

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragoiti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA - JATETXEA

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Nire Autoocasion NA

**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

TXORIEKRI MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

Datuak:

-Istripuaren data.

1944ko ekainaren 25a. (Kontutan hartu behar da 19 egun lehenago Normandiako lehorreratzea izan zela).

-Gertaera:

Ingalaterratik irten ziren, Toulouse ingurua bonbardatzeko asmoz. Matxura baten ondorioz, lau motorretatik bat baino ez zebilen. Gainera, sistema hidraulikoa kalte-tua zegoen eta ez zuten sistema elektrikorik. Horrela zetoze laurto zuten Erandion lurra hartzea, goizeko 10:00ak aldera.

-Abioia:

Boeing B-17G-45 zen, 42-97292 zenbakia zuena eta "Bachelor's Bride" izena zuena.

Abioaren ezaugarriak: zabalera, 31,54m; luzera, 22,50m; altuera, 5,82m; pisua hutsik: 14.975kg.

-Tripulazioa:

Pilotua: Goodrich Ferrall K. (Zaurituta, aurpegian).

Kopilotua: Spencer Stanley T. J. (1976an hil zen).

Nabigatzailea: Smith John P.

Bonbaketaria: Kurrus Harold R. (2010ean hil zen).

Goiko torretako artilleroa: Zura William V. (1999an hil zen).

Bola torretako artilleroa: Fann William A. (Buru-hezurra apurtu zitzaion eta lau egun eman zituen konortetik gabe. Gaur egun, 89 urte ditu eta Houstonen bizi da).

Radio operadorea: Craghead Jesse J. (Sudurra apurtu zitzaion. 1995ean hil zen).

Eskuineko artilleroa: Braun Edwin G. (1999an hil zen).

Atzeko artilleroa: Callaghan John F. (2000. urtean hil zen).

istripuaren informazioa eta hura abiapuntutzat hartuta, hainbeste datu eta argazki.

Jende gehiago, abioiaz interesatuta

Egun batean, Irati liburutegiko langile prestuaren mezua jaso genuen. Frantziako jubilatutako batzuk haien herria bonbardatu zuen abioi baten gaineko informazioa batzen zebiltzan, baina datei erreparatuta konturatu ginen "eurena" eta "gurea" ez zela hegazkin bera. Izan ere, garai hartan, bonbardaketa egin ostean, abioi bat baino gehiago Bizkaian edo itsasoan amaitu eben. Jubilatuen birtatez Thierry Martinezen berri izan genuen. Honek informazioa zuen "gure" hegazkinari buruz eta gehiago jakin nahi zuen. Aurtengo ekainean hitzordua eduki dugu berarekin, Erandioko eliza aurrean.

Gizon gaztea da Thierry, 37 urtekoa, Historia eta abioi zalea. Toulousen bizi da, eta aspaldian dabil bere herria bonbardatu zuten hegazkinen inguruko datuak bil-tzen. Geldituak ginen domekan, Nafarroatik zetorren. Kontatutakoaren arabera, egun berean abioi bi jausi ziren Euskal

Herrian; bata, Erandion; eta bestea, Orreaga inguruan. Eta Thierry azken hegazkin honetako pilotuen senide amerikarrekin izan zen Nafarroan. Hegazkin biei buruzko dossier handia ekarri zuen.

"Gure" abioia jausi edo lurra hartu zuen landetara abiatu ginen. Frantsesak metalak detektatzeko gailua zuen eta han ibili ginen, zuloak egiten eta egiten. Bere ustez, abioiaren arrastoren bat egon behar zen eta ordu batzuk eman ostean,

gauza asko berreskuratu genituen: traktoreen burdinazko ale herdoilduak, iltzeak, zeramika zatiak... Baina abioiaren arrastorik ez. Azalpena dauka: hegazkina ez zen puskatu, baizik eta lurra hartu zuela. Ondoren, desmuntatu eta piezak eroan egin zituzten. Zerbait gelditu bada, oso gauza gutxi izango da eta lekua zehatz-mehatz jakin behar da. Orreagan jausitako abioiaren zatiak, berriz, jaso ditu Thierry eta haiek erakutsi zizkigun.

Frantsesak ekarritako dokumentazioari eta aurretik Interneten topatutakoari esker, gure etxeko betiko istorioa Historia bihurtu da. Abioiak "Bachelor's Bride" zuen izena eta Boeing B-17G hegazkin bonbaketaria zen. Haren argazkiak badaude, jausi aurrekoak eta, harrigarria, ostekoak ere bai. Tripulazioa bederatzi lagunek osatzen zuten eta haien gutunak ditugu, mediku-txostenak... Pilotuak 93 urte ditu gaur egun eta Seattlen bizi da: beste batzuk hil dira. Thierry haien senideekin dago harremanetan.

Gure etxean inork ez zuen gogoratzten, baina tripulazioko batek zauri larriak eduki zituen, eta beste bik zauri arinak. Hasieran, Don German Pereiro orduko medikuak eta Perdigo praktikanteak tratatu zituzten Fonsaren etxean (ez daki-gu non den). Zaurituak ospitalean izan ziren, eta, ostean, denboraldi bat eman zuten Santiagoren etxean, lehen aipatutako Lagine txaletean. Hegazkinlariak gogoratu dutenez, Santiago hori Nueva York Bilboko kafetegia jabea zen. Txaletean, garai hartan jausitako beste hegazkinlari batzuk ere bizi omen ziren. Hilabete bi ostean, Gibraltartetik itzuli ziren Ingalaterrara.

Thierry abioaren aztarnak topatzen dabilela. Atzean, Agarretxu baserria.



Ahaleginaren eta ilusioaren garaia

Zure bultzada behar dugu

Igoeraz igoera, futbolean



Iraultza taldeak Bilbon lortu eban igoera

Aurten ederto ibili dira Txorierriko futbol talde bi: Iraultza taldea, Zamudiokoa, Lehenengo Mailara igon da; eta Loiu A taldea, Ohorezko Mailara. Gainera, Loiuko gazte taldeak be igoera lortu dau eta datorren urtean Lehentasunezko Mailan jokatu dau. Zorionak guztioi!

t: Gaizka Eguskiza

Karlos Hormaetxek bizitza osoa daroa Iraultza taldean: hasieran, jokalar; gaur egun, presidente. Aurten, Lehenengo Mailara igon da taldea, baina, horretarako, kanporaketea irabazi behar izan eutsan Basurtu B taldeari. "Etxean bardindu eta kanpoan irabazi egin genduan. Eurak sendo ibili ziran defentsan; aurrean, aldiz, golak sartzea kostau jaken. Partida orekatuak izan ziran, eta itzulerakoan, gola sartu bezain pronto, eurak zabaldu egin ziran eta aukera gehiago izan genduan".

Karlos oso pozik dabil, zelan ez. Bere ustez, entrenatzailea izan da igoeraren gakoetako bat. "José Ángel Delgado goi mailako teknikaria da, Estatu mailako txartela dauka. Igaz, otsailean, hartu eban taldea, eta salbau egin ginduzan. Eta aurten, bere eskutik, igotzea lortu dogu". Tamalez, José Ángelek ez dau datorren urtean Iraultzaren aulkian jarraituko, Iraultzak baino maila handiagoa dauan talde bat entrenau gura daualako. "Tira, normala da", dino Karlosek etsipenez.

Halanda be, hurrengo denporaldian mailari eustea espero dau presidenteak. "Jokalariak antzekoak izango dira, baina futbolari barriren bat topau beharko dogu, beste kategoria bat dalako eta futbolariak beharko doguzalako. Horren haritik, Zamudio B taldea desagertu egingo da eta guretzat gauza ona da, handik

jokolari batzuk etorri ahal izango diralako". Ligan Uritarrak Larrabetzuko taldearen kontra arituko dira, baina zamudioz-tarrek ez dabe arazorik eukiko, oso "harreman ona" daukielako Txorierriko talde guztiakaz. "Alkarri laguntzen deusagu eta gure artean ez dago lehiakortasun berezirik. Lehiakortasuna Lehenengo Mailan Athletic eta Errealaren artean baino ez dago".

Igoerak poztasuna ekarri dau, baita kezka ekonomikoa be, datorren denporaldia garestiagoa izango dalako. Iraultza taldea umila da, eta Karlosek jakin badaki garai txarrak dirala. "Diru aldetik justu-justu gabiltza eta, esate baterako, jokalariek eurek ordaindu behar dabez bidaiak. Hainbat urte emon dogu beharrean ogerleko bat be ikusi barik. Orain dala sei urte Udala hasi zan diru-laguntza emoten. Guretzat beti da gitxi, baina asko be bada, aldi berean. Ea aurten zerbait gehiago lortu ahal dodan".

Loiu be, gora

Loiu taldeak be badauka zer ospatu, Ohorezko Mailarako igoera lortu daualako. José Urrutikoetxea "Urti" da presidentea, eta haren esanetan "hainbat gauza" hartu behar dira kontuan igoeraren nondik norakoak azaltzeko: "Suerte apur bat, giro polita jokalarien artean, zauri garrantzitsurik ez, jokolari batzuek maila handia erakutsi dabe... Guztion jardurea eta



Loiu taldeak hainbat gol sartu ditu aurten

jokaerea eredugarriak izan dira". Borja Gómez Mardones entrenatzaileak beste ikuspuntu bat adierazo dau. "Igaz seigarren postuan bukatu genduan eta azken momentura arte ibili ginan igotzeko zorian. Aurten blokea mantendu, eta beste jokalaririk on batzuk ekarri doguz, talde polita osatzeko".

Loiuztarrek 70 gol sartu dabez aurretik, eta ligan gol gehien sartu dituan taldea izan dira. "Oso fin ibili gara aurkariaren atean aurrean. Ez dogu gol asko eta asko sartu dituan jokalaririk euki; golak sartzeko ardura guztien artean banandu da. Javi Monedero kapitainak, esate baterako, 16 gol sartu ditu, penaltirik jaurti barik. Oso eskuzabala da eta taldearen alde egiten dau beti behar. Horrelakoa da guk dogun jokalaririk mota", dino Borjak.

Datorren urtean gogor jarraituko dabe beharrean. Ziurrenik, talde erdia barria izango da, baina entrenatzailea baikor agertu da. "Oso gustura egiten dogu behar taldean, oso giro ona dago, eta printzipioz mailari eustea dogu helburu, baina ikusiko dogu zer gertatzen dan. Kategoria gaxa da, jokalaririk onak

*Iraultza: "Futbolari
barriren bat topau
beharko dogu datorren
denporaldiari begira"*

*Loiu: "Denporaldia
zoragarria izan da,
gehiagorik ezin
da eskatu"*

dagoz bertan, eta gaxa izango da jokalaririk onak ekartea. Halanda be, konfiantza handia daukat bai dagozan jokalarientzat, bai etorriko diranengan".

Era berean, presidentea pozik ibiliko da mailari eusten badeutsie. "Ondo ari zuten bagara eta goiko postuetan bagabilza, ederto; bestela, behekoen kontra

gogor egingo dogu behar, mailari eusteko. Loiu talde historikoa da, 1928an sortu zalako, baina oso bazkide gitxi doguz eta baliabide ekonomikoak be urriak dira. Udalak eta Olarra enpresak laguntzen deuskue, baina beste inork ez. Eta gaur egun laguntza handiagoa edo beste leku batzuetatik lortzea oso gaxa da. Beraz, gogo handiz eta musu-truk jarraituko dogu beharrean, kluba aurrera eramateko".

Denporaldia biribila izan da loiuztarren zatik. Izan be, gaxte taldea be Lehen-tasuneko Mailara igon da. "Urtea zoragarria izan da, gehiagorik ezin da eskatu", esan deusku "Urtik". "Nire ustez, datorren urtean gaxteak talde nagusia baino hobeto ibiliko dira, jokalaririk gehienek jarraituko dabelako". Borja be poz-pozik dabil gaxteak. "Denporaldia apur bat luze egin jake: hasieran indartsu ibili ziran, baina azkenean emaitza txarrak etorri dira. Zorionez, ez jake igoera iges egin. Jokalaririk batzuk ibili dira talde nagusiagaz entrenetan, eta datorren urtean batzuek jarraituko dabe gugaz jarduten. Eta denporaldiaren eta beharizaren arabera, jokatzeak aukerea be eukiko dabe, noski".

**Carnicería
Charcutería
IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
etortzeagatik

**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basemiko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

**Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin**

**ATE IREKIEN
JARDUNALDIA**
(18:30etatik aurrera)

Apirilaren 19an
Maiatzaren 3an
Ekainaren 5ean

**POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.**
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larbitze Heziketa eta Bigarren Hezikuntzarako Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
46160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

BATXILERGOA
• Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Mekanizazio Teknika

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Teknika
• Produktzio Programatzeko Teknika
• Automatizazioa eta Informatikako Sistemetak Teknika
• Salmenten eta Merkataritza esparruen Kudeaketako Teknika
• Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Teknika

"Arazo barik egokitu naiz hemeng

ROBERTO MARTINEZ | kolonbiarra



Ondo gogoratzen du Robertok Txorierrira ailegatu zen eguna: 2001eko ekainaren 16a. Hamaika urte pasatu dira harrezkerro, eta kolonbiarrak bere bizitza egin du bertan. Ondo sentitzen dela esan digu, erabat integratuta. Gaur egun, Sondikako Jubilatuen Etxeko tabernaren arduraduna da.

t/a: Itxaso Marina

Zergatik erabaki zenuen Kolonbia uztea?

Nire semea, Juan Sebastián, oso gaxorik zegoen eta ebakuntza zehatz bat behar zuen. Kolonbian ez zegoen baliabiderik ebakuntza hura egiteko. Lagun bat genuen Estatu Batuetan eta han saiatu ginen, baina garestiegia zen: 60.000 dolar, hain zuen ere. Gurutzetan saiatu eta aukera eman ziguten. Semea eta emazte ohia etorri ziren hona, baina arrisku handiko

ebakuntza zen eta medikuek ni ere etortzeko eskatu zuten, baimena sinatzeko. Ebakuntza arrakastatsua izan zen, eta nire semeak 14 urte ditu gaur egun.

Osasun arloko arrazoiak ekarri zintuen hona; hala ere, zaila izan zen zure herria utzi behar izatea?

Nik ez nuen nire sustraia pentsatu; nire semearen osasunean baizik. Semea dena da niretzat, eta aita naizen heinean, nire esku zegoen guztia egin behar nuen, berak aurrera egiteko.

Zergatik Sondikara?

Koinata ohia hemen zegoen, eta berak lagundu zigun ebakuntzarako behar genuen guztia egiten. Pozik nago bertan, nire beharrianak betetzeko beste baliabide dudalako. Lagun handiak ditut eta herriko jendeak estimatzen nau. Hemengo kulturara arazo barik egokitu naiz eta banoa aurrera egiten.

Beraz, bertora egitea ez zitzaizun asko kostatu...

Emigrazioa onartuta dudan gauza da, Venezuelan eta Panaman ere bizi



o kulturara”

*“Kolonbia utzi nuenean,
ez nuen nire sustraletan
pentsatu; semearen
osasunean baizik”*

*“Azken batean, han eta
hemen, guztiok egiten
dugu borroka, bizitza
duina izateko”*

*“Politikariek txarto
egiten dutena herritarrek
ordaindu behar dute;
ez naiz haiekin
ondo konpontzen”*

izan naizelako. Hona ailegatu nintzenean, nire balioak erakutsi nituen eta jendeak maite nau. Jubilatuen etxean 10 urte daramatzat. Bertoko taberna hartu ahal izateko, nire egoera erregularizatu behar izan nuen eta autonomo bihurtu. Sondikako enpresa batek sei hilabeteen kontratu ninduen, horrela egin ahal izateko. Nik beti uste izan dut kotizatu behar zela, nire semeagatik eta etorkizunera begira, ziurtasun bat izateko.

Zertan egiten zenuen lan Kolonbian?



Industria-segurtasun arloko ardura-duna izan naiz, petrolio-enpresa batean. Farmazia sektorean ere lan egin dut mediku-bisitari, eta taxi bat gidatu dut. Semea aurrera ateratzeko beharrak lan horietan aritzera bultzatu nau. Osagintza pribatua da Kolonbian.

Herriaren gaurkotasunari jarraitzen diozu?

Bai, Interneten bidez dut nire herriaren egoeraren berri. Hango politikak eta Europakoak ez dira berdinak. Segurtasunik falta dago Kolonbian eta hori lanik ez dagoelako ere bada, ezberdintasun handiak daude pertsonen artean... Eta azken batean, han eta hemen, guztiok egiten dugu borroka, bizitza duina izateko eta gure eskubideak izateko. Inoiz Kolonbiara bueltatzea gustatuko litzaidake, semea nagusia denean. Eta, noski, bertan eraman dudana bizitza eta lortu dudana gutxietsi barik.

Zer deritzezu krisiari eta gobernu zentralak ezarri nahi dituen murrizketei?

Oraingoz, krisiak ez du eraginik niregan. Orduetegi zorrotza dut, eta ez dut denborarik irabazten dudana xahutzeko. Murrizketei dagokienez, ez direla bidezkoak pentsatzen dut. Osasunik eta kulturarik ez duen herria ez delako ezer. Oinarrizko eskubideak dira horiek. Politikariek txarto egiten dutena herritarrek ordaindu behar dute. Eta hori han eta hemen gertatzen da, herri guztietan. Horregatik ez naiz ondo konpontzen politikariek.

Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Beti baikortasunarekin. Mentalitate baikorra dut, eta hari eta nire lanari esker beti lortu izan dut aurrera egitea. Era berean, babes handia jaso dut lagunen-gandik. Ez naiz inoiz diru-laguntzetatik bizi, ez zait gustatzen. Dudan guztia nire ahaleginari esker izan da.

Zapatak
Arropa
Osagariak
Nazioarteko markak

ganix

Txorierritartutik 9-10. lekoko
(Arloa eraikitzaile)
48140 DERIO
94 454 20 13
www.ganix.com

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai


Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefonoa: 944 543 705

lurrindegia MAMEN mertzeria

Golko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

Hara eta hona datuekin



t: loritz Larrabeiti

Aldaketak oso azkar ematen dira teknologia munduan, eta gutxi gorabehera sei hilero agertzen da kontzeptu txiki berri bat. Izan ere, alde handia dago 1980. urtearen inguruan agertu ziren lehen mahai gaineko ordenagailuen eta gaur egungo tablet eta smartphonen artean, aldaketa asko izan baitira. Datuen euskarria garrantzitsuenetariko bat da.

1980tik 2000ra bitartean, datuak gorde, eta hara eta hona eramateko gehien erabili zen euskarria disketea izan zen. $5^{3/4}$ hazbetekoa lehenago; eta, $3^{3/4}$ hazbetekoa, beranduago. Laurogeita hamarrek hamarkada amaieran, CDak, ordenagailuz grabatzeko sistemak nahiko merkatu ziren, eta hurrengo urteetan disketeak ia desagertzea ekarri zuten. Baina CDek ez zuten denbora luzerik iraun euskarri eramangarri nagusi gisa. USB memoriak 2000. urtean agertu ziren, eta gure dokumentu, argazki, bideo eta musika digitalak leku batetik bestera eramateko euskarri ezin hobea bihurtu dira

Euskarri eramangarri batzuk ezagutu ditugu azken hamarkadotan: disketea, CDa, USB eta webguneak

gaur egun. Eta denbora batean euskarri nagusia izango dela dirudien arren, bada biltza beste sistema batzuk agertzen.

Sistema horien oinarria datuen zerbitzari bat eta Interneteko konexioa da. Gehienak webguneen bidez, kudeatzen dira, Internet nabigatzaileen bidez fitxategia webgunera igo eta bertatik jaitziz. Beraz, lan bat egin ostean, hura USB memoria batean gorde ordez, fitxategia MediaFire.com bezalako webgune batera jaso daiteke, beste momentu batean Internet konexioa duen beste ordenagailu batetik deskargatu eta lanean jarraitze-

ko. Abantaila argia da: USB memoria erraz gal dezakegun edo etxean ahaztu dezakegun bitartean, ia ordenagailu guztiek dute Internet konexioa.

Hala ere, ideia ona den arren, MediaFire bezalako zerbitzuak batez ere fitxategiak elkarbanatzeko erabili ohi dira. USB memoria konektatu eta fitxategia hara kopiatzea erosoagoa da, webgune bat zabaltzea eta bertara fitxategi bat jasotzea baino. Internet konexioaren abiaduraren arabera, fitxategi bat jasotzeko luzera eman dezake; USB memorian kopiatzea segundo gutxian egiten da.

Sarean

Arazo horren haritik, DropBox sortu zen. Hura sistema eragilean instalatzen den programa txikia da. Mahai gainean, DropBox izeneko karpeta sortzen da, eta karpeta horretan sartzen diren fitxategi guztiak Interneteko zerbitzariarekin sinkronizatu egiten dira. USB memoria izan-go balitz bezala, fitxategia karpetan sartu eta programa bera arduratuko da gainontzekoaz. Hala, gure dokumentuak webgune baten bidez izango ditugu eskuragarri. Horiek izen eta pasahitz bat erabilita babestu beharko ditugu.

DropBox sistemak beste abantaila bat du: beste ordenagailu, tablet edo mugikor aurreratuetan instalatu ahal dugu, eta erabiltzaile-kontu bera erabiliz, fitxategiak gailu guztietan izango ditugu sinkronizatuta. Horrela, edonon gaudela eta sakelako telefono aurreratuak badugu, gure fitxategiak, musika, argazkiak eta abar eraman ahalko ditugu gurekin.

Azkenik, aipatu beharra dago DropBoxen fitxategiak edo karpetak elkarbanatzeko aukera ematen digula. Adibidez, argazkiak e-mailez erantsita bidali beharrean, argazkiok karpeta batean gorde ditzakegu eta karpeta helbidea edo lotura kopiatu. Hura testu moduan jar dezakegu e-mailaren mezuan, eta bidali. Informazio gehiago: www.dropbox.com.

 **Inmobiliaria ETORKI**

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Móvil: 607 32 35 53 48160 DERIO

Aislamientos Derio Tabikeak

Pladurrezko sabaia eta apalategiak
Sabai erregistragarriak

Isolamendu termiko eta akustikoa

Alertza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

Zapoak eta sugeak erre?

egiten dabe sua San Joan bezperan. Gaur egun, baina, lehen bide gurutze ziran leku asko biribilo dira, **rotondaz** bete gaitue-eta. Halanda ze, aldatu egin dira gari-artoak; zapo-sugeak eta bide gurutzeak. Erretzekotan, orduan, zelako zapoak edo apoak erre? Ez deustu inoz inork "zapo hori!" iraina jaurti? Ba, irain latza zan euskaldunak euskaldunari botatzeko.

Ze, Larrabetzuko Literaturie inguruko ospakizun bizi-bizian kontu kontari genbiltzala, aitatu neban zapo asko iruntsi behar dala talde-lanetan-eta jardun ezker, eta ondorioz, San Joan egunean ez jakula geratzen zaporik **surtara** botateko. Bat-batean argitu euskun Mari Felik, ondo legokeela urte guztiko zapo-sugeok San Joan gauean kanpora botatzea, suak garbitu **deiskuzan**. Egia esan, era horretara uxatu egingo geunke sorginkeria, malefizioa, geuregandik.

Ohiturari jarraituz, eskegi daigun leizarra lora sortaz apaindurik etxeke atean eta sartu daigun solo erdian. Dantza gaitezan suaren inguruan; egin daigun jauzi, kantatuz:

San Joan Bagilea
zapo-sugeakaz akorde,
artoak eta gariak gorde!

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

"Zapoak eta sugeak erre, erre! Artoak eta gariak gorde, gorde!" **Kanteu** ohi da gure artean. Baina zer dinogu? Behin honezkero ez da garirik Txorierrin; abestiko letra horrek XX. gizaldia dakarsku gogora.

Eta zapoak eta sugeak erre? Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia Behatokiak dinoanez, arriskuan dira euskal kostaldean -hots, Azkorin (Getxon) eta Txingudin (Irun-Hondarribia)- bizirik diran zapo lasterkari mota biak.

Ganera, zapo-sugeak bide gurutzeetan erre? Geldoetan sorginkeriagaitik almohada barruan formatzen ziran oilaskoak bidegurutzetan erretzen ziran. Lapurdiko Sara herrian, bidegurutze batean

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Consulting
Sondika s.l.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentia
Allianz
609 475 746

Mitxine, 6 behea
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

urel
Psicología Social
Psicología - Pedagogía - Logopedia

URSULA TOMÁS ALMAGRO
645 147 982
Mitxine, 3 behea • 48150 Sondika
www.urel.es • urel@urel.es

NARTEGIA • URDAITEGIA

VICTOR
ARTESAU-ELABORAZIOA

Okela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txistorra, solomoak...

Plater aurrekoiziatu

Golri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

Entsalada errusiarra

Osagaiak:

- 0,50 kg patata
- 2 lata hegaluze (oliba olioarekin)
- 3 arrautza
- 0,24 kg azenario
- Ontzi bete oliba berde
- 0,08 l arrautza pasteurizatu
- Ozpina
- Gatza

Aurre-prestaketak:

Entsalada muntatzen hasi baino lehen, arrain eta barazkien aurre-prestaketa egin behar da. Hasteko, ireki hegaluze latak eta lauskitu arraina. Bestalde, garbitu patatak eta ebaki azenarioa takotoetan.

Egosi patatak azal eta guzti, ondoren zuritu eta azkenik ebaki dadotxoetan. Aldi berean, egin beste horrenbeste arrautzekin. Azenarioa ingeles erara ego-siko dugu. Txikitu olibak, eta prestatu mahonesa saltsa, azken momentuan pasteurizaturiko arrautzarekin. Mahonesa saltsa egitea gauza erraza da: jarri ontzi batean arrautza bat, gatza eta ospina, eta erabili irabiagailua astiro-astiro gorantza eramanez, eta emulsionaturiko saltsa lortuz.

Entsaladaren muntaketa:

Generoak banatu anoa kopuruen arabera. Gehitu mahonesa eta nahastu, alisatu eta garbitu zerbitzatuko den plate-



raren bazterrak. Hozkailuan gorde zerbitzatu arte.

Zerbitzatzea:

Zerbitzatzeko orduan, kontutan izango dugu entsalada ahalik eta denbora gutxien ematea giro tenperaturan. Plate-rean jartzeko moldeak erabil ditzakegu. Tiretan moztutako pikillo piperrarekin apaindu daiteke plater hau.

Barrengorria txakolin erara

Osagaiak:

- Barrengorri freskoa
- Txakolina
- Kipula
- Berakatza
- Oliba olio
- Urdaiazpiko iberikoa
- Ogia

Elaborazioa:

Garbitu barrengorriak. Ebaki tipula eta berakatza brunoise erara. Po-txatu berakatza eta kipula olio gutxi daukan zartagin batean. Egitear dandenean, gehitu txakolina eta barrengorriak. Tapatu eta utzi erregosten. Amaitzeko, frijitu ogia, eta muntatu barrengorriak binaka urdaiazpiko iberiko xerra batekin tartekatuz.



IRATXO
gazotegia
tarta pertsonalizatuak
trufak
teliak
pastelak
pastak
Mikel Zurro, 2 - 3. floor - Sondika, 48150 - 94 453 89 19

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3. floor - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.
Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144
Pentsu naturalak

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana, 1-3, SONDIKA
Elegabeko ordutegia



Berba zaharrak

Ezetz asmatu antzinako berbek zer esan nahi duten.

1. Kikatz
2. Orkoloa
3. Kokile
4. Gilistrue
5. Lohia
6. Txikerra
7. Txapine
8. Munepe

- A) Epurua, hatzamar lodia
- B) Zikina
- C) Zotina
- D) Txikia
- E) Oihua, garrasia
- F) Behera begira egoten dena
- G) Artilezko galtzerdia
- H) Ontzia, moldea

ERANTZUNAK: 1C, 2A, 3H, 4E, 5B, 6D, 7G, 8F

Sudokua

				7			4	1
8		3						
		5						
			1	5	3			4
		9				3	2	5
							8	
	3	2		4			7	
5			2		9			
						4		

2	3	4	7	9	5	1	8	6
8	1	9	6	3	2	7	4	5
6	7	5	1	4	8	2	3	9
7	8	1	9	2	6	4	5	3
5	2	3	8	7	4	6	9	1
4	6	9	3	1	5	8	2	7
3	6	2	8	1	9	5	7	4
9	5	7	6	4	3	1	8	2
1	4	8	5	7	3	6	9	2

AM
FORMACION • TRADUCCIONES

www.am-formacion.com
Garaioitza 120 D
48106 LEZAMA
T: 94 455 64 69

info@am-formacion.com
Erremoteri 18
48150 SONDICA
T: 94 453 64 08

– BULEGARI ESKOLA
– BULEGARI GUSTIAK
– AZTERKETAK OFIZIAK
– ESKOLAK PRESTAKUNTZA
– OHI-TO-OHETAKOAK
– PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
– ENKOLAT KAMPORRI KLASAK
– ITZULPEN JERMITUA

ATARRABI

Erremoteri, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

Txorierri

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella

Milena 5. bajo - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larmailak: 670 985 885 - www.txorierri.com

Ikuskizunak

Derio

- > Aire zabaleko zinema. Uztailak 9, 22:00etan, Besaide plazan.

Irteerak

Derio

- > Lezamako trenbide zaharra. Uztailak 8, 10:00etan, Herriko plazan. Tokiko agenda 21ek antolatua.

Zamudio

- > Pirinioak. Uztailaren 6tik 8ra bitartean, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Goitioltzako jaiak (Lezaman)

Uztailak 13, barikua

- 18:00: Txupinazoa.
- 18:00: Umeentzako jolasak.
- 23:00: Erromeria: Triki ta ke.

Uztailak 14, zapatua

- 10:00: Txakolin Bira, Zorritzeta euskara elkartearen eskutik.
- 13:00: Paella Txapelketan izena ematea.
- 14:30: Paellak aurkeztea.
- 22:30: Kontzertuak: Noizean behin eta Enkore.
- 00:00: Erromeria: Triki-zio.

Uztailak 15, domeka

- 12:30: Txakolin bertso-dastatzea: Etxahun Lekue eta Arkaitz Estiballes. Zorritzeta euskara elkartearen eskutik.
- 16:00: Mus Txapelketa (izena ematea ordu erdi lehenago).
- 20:00: Saiheski jana.



Pirinioak

Bestelakoak

Derio

- > *Huellas VI* liburuaren aurkezpena. Uztailak 6, 19:30ean, Kultur Birikan. Literatura tailerraren eskutik.
- > "Busti zaitez" esklerosi anizkoitza duten lagunen aldeko ekimena. Uztailak 8, 10:00etan, igerilekuan.
- > Tokiko agenda 21. Uztailak 24, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.

Zamudio

- > "Busti zaitez" esklerosi anizkoitza duten lagunen aldeko ekimena. Uztailak 8, igerilekuan.
- > Azaleko minbizia prebenitzeko kanpaina. Uztailak 12, 17:00etatik 20:00etara, Sabino Arana plazan.

Ikastegi homologatua

LARRABETZU MUSIKA ESKOLA

tel: 94 455 70 66

MATRIKULA ZABALIK

SARRERA-PROBAK

Derion:
Astearteetan-ostegunetan
16:00-20:00

Lezaman:
Astelehenetan-asteazkenetan
16:00-20:00

Larrabetzun:
Egunero

musika-tresna guztiak:

- pianoa
- klarinetea
- biolina
- txistua
- abesbatza
- soinua
- armonia
- ...

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK
ZERBITZUA, ENPRESENTZAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARRETALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONUA/FAX: 94 455 64 87

GOXO-GOXO LOHITZUN

Arretaldeak zabalik
Ogile egutietan
Postalek antolatzen

Garsiolza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

Uda honetan

nire igerilekura gonbidatuko zaitut



Uda honetan gure igerilekuetan egun bat igarotzera gonbidatu nahi zaitugu, zerorrek ikus dezazun nolakoa den bizitza Landabarri Etxebizitza gunean.

Eskatu argibideak promozioari buruz eta jaso zure gonbidapena.



ETXEBIZITZA-GUNEA
LANDABARRI

Bilbo Handiko
habitat berria



Ez geratu besteek diotenarekin, ikus ezazu zerorrek!

400 familiak baino gehiagok erabiltzen dute dagoeneko

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

Eskatu argibideak
konpromisorik gabe

94 645 90 15 www.sukia.com

urdaitegia delicatessen

amalur



• Hestebeteak

• Iberikoak: Beher, Masan...

• Jakiak prestatzen ditugu

• Kroketak

• Aurrez prestatutako jakiak

• Haragia

• Izoztuak

• Ogia

• Produktu bereziak

Ordutegia:

Astegunetan:

9:30-14:30 / 17:30-20:30

Larunbatetan, igandetan eta jai egunetan:
10:30-14:30



Ekainaren 1ean
denda berria
ireki genuen
Aldekonen

GLUTENIK GABE



ARRAUTZIK
GABE



Uribe, 14 - 48160 DERIO

94 612 19 55

www.amalurderio.com

info@amalurderio.com